

# Aikor!

*txorierriko aldizkaria*

**Hori Bai elkartea,  
Larrabetzuko  
gazteriaren  
topagune  
belaunaldiz  
belaunaldi**



# LEZAMAKO JAIAK GORA ANDRA MARI !!!

## PARTE HARTU GURE JAIETAN

### JAIAK EUSKERAZ BIZI!!!



AYUNTAMIENTO DE  
LEZAMA  
LEZAMAKO UDALA

TABERNA - JAIETXEA

**ESTANCO DAÑOBEITIA**  
VICTOR DAÑOBEITIA GUEREDIAGA

Tel.: 94 455 62 65  
94 455 65 34

LEZAMA  
(Bizkaia)

**DAÑOBEITIA JANARI DENDA**

ZERBITZUA ETA KALITATEA

Aretxalde, 62  
Tel.: 94 455 50 47

48196 LEZAMA

**JOSUNE  
JANARI DENDA**



Garaioitza, 74  
Tel.: 94 455 62 48

**CONSTRUCCIONES  
LANDETANE, S.L.**



ANDER ETXEBARRIA  
MIKEL ETXEBARRIA

Txerri, eta faxa: 94 455 65 82  
607 54 77 67  
607 23 99 42

Garaioitza ezazu, 142  
48196 LEZAMA  
Bizkaia

**JAN-TOKI**  
Jaietxea



La Cruz sinana - Tel.: 94 455 61 02 - Bizkaia (Bizkaia)

**Lezamako Batzokia**

- \* Puntaila handian Athleticeen partidu guztiak...
- \* ...Jaietan giro irzela eta 100m<sup>2</sup>-ko karpia kanpoaldean.
- \* Eguneko menuak eta nurreluz eskatutako buzkari eta aitari bereziak.

Garaioitza, 120 C 48196 Lezama

**Argitaratzailea:** TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili) Tf.: 94 452 34 47 **e-posta:** totoan@topagunea.com aikortxori@yahoo.es

**Zuzendaria:** Xabier Goienetxe  
**Erredakzio burua:** Itxaso Marina  
**Erredakzio taldea:** Juantxu Bilbao, Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Alberto Legarreta, Mari Tere Onaindia, Amagoia Guezuraga, Belen Gana, Saionara eta Maripi, Patxi Gaztelumendi, Arantzazu Mendiguren, Bihotz Bakartien klubeko kidea, Arrekikili.

**Kolaboratzaileak:** Iñaki Bilbao, Oihana Astobietta, Puri Martinez, Lourdes Lasuen, Patxi Serrano, Masi Oruetxebarria, Atotz Goikoetxea, Juan Luis Goikoetxea, Lourdes Etxebarria, Koldo Peñafiel, Etxahun Lekue, Fernando Olabarrieta, Zalao Jaka, Mireia Sanz, Aritz ta Nagel.

**Zuzentzaileak:** Alberto Mtz. de la Cuadra, Jagoba Zallo  
**Publizitatea:** Arantza Atxutegi  
**Banaketa:** Arantza Atxutegi, Josu Ziordia.  
**Maketatzailea:** Ainara Torres  
**Inprimategia:** Gertu  
**Ale kopurua:** 5.000  
**Lege gordailua:** BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor!-ek ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



Eusko Jaureritza



Biskaiako Foru Aldundia  
Kultura Saria

diruz lagundutako aldizkaria



20-22 Jaiak



14 UR kirol taldea



31 Txorierritarrak munduan



16 Hori Bai



13 Joana Lara



11 Gatibu

## AURKIBIDEA

4Eritxia 5Laburrak eta albisteak  
 10Egunkaria-tik Berria-ra 11 Gurean izan da Gatibu 12Etxetik kanpo bizitea 13Gaztea eta... Joana Lara 14Urarekin jolasean  
 16Hori bai 20Larrabetzuko jaiak 22Lezamako jaiak  
 24Lezamako eskola 26Zamudioko pilota elkarte 28Baserri mundua 29Teknologia 30Txorierri ezagutu 31Txorierritarrak munduan 32Sukaldaritza 33Denbora pasa 34Agenda

**AIKOR! aldizkariaren laguntzailea izan gura badozu, hemen dozu erea:**

**Izen-abizenak** \_\_\_\_\_

**Helbidea** \_\_\_\_\_

**Telefonoa** \_\_\_\_\_ **e-posta** \_\_\_\_\_

**Bankuko 20 zenbakiak** \_\_\_\_\_

**Egin zure aukera: 20 euro**\_\_\_\_ **beste kopuru bat**\_\_\_\_

**Orri hau helbide honetara bialdu: Sabino Arana plaza, 3 48170 Zamudio zure laguntzagaz aldizkaria hobetuko dogu!**

# Familiaren garrantzia



Mireia Sanz

(Txorierriko Drogamenpeketasunen Teknikaria)

Familia berezko sistema soziala da, eta sistema sozial guztiek bezala, badu arau multzo bat: taldeko kideek euren rola daukate eta arazoak negoziatu eta konpontzeko molde propioak sortzen dituzte, zereginak erarik egokienean bete ahal izateko. Familiak tradizionalak edo berritzaileak, moldaerazak edo moldakaitzak izan daitezke, modu eraginkorren edo kaotikoan antolatuta egon daitezke. Edonola ere, familia oro saiatuko da bere burua funtzionatzeko eran antolatzen, berezko helburuak lortzeko asmoz. Afektua, leialtasuna eta kideen iraupena da familia guztien bereizgarri izan ohi dena, eta hori berori da beste sistema sozialetatik bereizten duena.

Tradizionalki familiarenak zirela esaten zen zenbait funtzio, gutxika-gutxika aldatuz joan dira azken hamarkadetan, eta, orain, familiatik kanpoko erakundeek betetzen dituzte funtzio horiek. Eskola, lagunak eta komunikabideak eragile garrantzitsuak dira, eta seme-alaben sozializazio prozesuan berebiziko eragina izaten dute.

Horren arabera, zein funtzio geratzen zaio gaur egungo familiari? Egia da familiak bere kideei oraindik laguntza ekonomiko eta afektiboa ematen diela, baina, jarraitzen al du oraindik ere seme-alaben sozializazio prozesuan eragile nagusia izaten?

Galdera horren erantzuna baietza da. Familia da gizarte babeserako daukagun sarerik garrantzitsuena. Dударik gabe, seme-alaben sozializazio prozesuan eragile nagusia da. Familiak betetzen dituen funtzioak ez dira agortzen, familia bera baita bere kideei laguntza emozionala eta nortasuna emateko oinarritzko zutabeetako bat. Nahiz eta, goian aipatu dugun bezala, hainbat eta hainbat eragin jaso, seme-alaben garapen eta sozializazioan familiak daukan betekizuna oinarritzkoa da. Alde batetik, eragingarri diren beste faktore

batzuen indarra neutraliza dezakeelako, eta, bestetik, indar hori handitu dezakeelako. Inolaz ere ez da eraginik gabekoa izaten.

Pertsonen garapenean familiak oinarritzko rola betetzen duela defendatzen baldin bada, ez da soilik pertsona horien biziraupen fisikoa bermatu eta beharrian emozionala betetzen duela

ko, baizik eta familia barruan ikasten dituztelako oinarritzko gauzak, pertsonen gizartean modu egokian moldatzeko beharrezko direnak, alegia. Hori guztia kontuan hartuta, eta, familia moldea dena delakoa izanik ere, familia guztiek egin behar duten kideen arteko harreman onak bultzatzeko, eta kide horiek prestatzeko heldutasun-prozesuan izango dituzten aldaketei zein ezusteko krisiei aurre egiten jakin dezaten.

***“Tradizionalki familiarenak ziren zenbait funtzio familiatik kanpoko erakundeek betetzen dituzte orain. Hala ere, familia da gizarte babeserako daukagun sarerik garrantzitsuena”***

## Tele zaborra



Zaloa Jaka (kazetaria)

Azken egunotan gero eta jende gehiagok idatzi eta hitz egin dau telebistak botatzen dauazan zaborren inguruan. Guzti-guztiek erabili dabez, gainera, modu apokaliptikoak eta keinu eskandalizatuak. Erreza da esatea zaborrari kiratsa dariola. Eta zabor mota asko dago. Zergatik kezkatzen gaitu bereziki telebistakoa?. Agian, ikusgarriena dalako. Guztiok eskandalizatzen gara eta guztiok erabiltzen doguz zaborrak eskeintzen deuskuzan baliabideak. Aznar jauna ere eskandalizatu da telebistako zaborragaz, baina, noski, oso dibertigarria iruditu jakon mitin baten emakumeren batek Espainiako presidentearen barrabilak gorestea. Eta ez bakarrik dibertigarria, ze, mitin baten ohikoak izan behar diran gaiak albo batera itziz, bera be bere zeren tamainaz aritu zan-eta, telebistako programa kutre baten egon izan balitz moduan kazetari horreen galderak erantzuten. Telebistakoa zaborra izango da, ez dot nik ezetz esango, baina ondo-ondoan zabor meta handiak dagoz. Telebistakoa aitzakia da, behar dogun ispilua gu ez garala holakoak frogatzeko, guk ez doguzala gauza horreek egiten ikusteko. Baina zaborraz inguraturik gagoz. Politikak zabor ederrak eskeintzen deuskuz aldiro, azken adibidea Madrilekoa izan da, usaintsu eta epel. Dagoeneko ohituta egon beharko ginatke. Gurea zaborraren gainean eraikitako zibilizazioa dala esan da sarritan, hondakinen ganean eraikitakoa. Zaborra espektakulu da orain, gizarte osoa bezala. Gehiegi ez harritzea eta ez eskandalizatzea lehen birziklapena izan daiteke.

**cianoplan s.a.**

Elkarte Teknologikoa 105 z/b  
48170 Zamudio

Tfnoak 944 20 97 91

944 20 97 87

<http://www.cianoplan.es>

global printers

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

# Behargintzak Txorierriko enpresa-sortzaileen tailer-ikasgela ireki du

Uztailaren 4an Txorierriko Behargintzak enpresa-sortzaileentzako tailer-ikasgela ireki zuen Sondikako egoitzan. Ikasgela berriaren inaugurazio ekitaldira Txorierriko alkateak eta enpresa-sortzaileak bildu ziren.

Enpresa berria abian jarri nahi dutenek proiektua lantzeko aukera izango dute gela horretan. Bestalde, euren negozioak aurrera egiteko ekimenen bat dutenek ere gelaren zerbitzuak erabili ahal izango dituzte. Horretarako, ordenagailuak eta euskarri multimedia izango dituzte euren eskura. Gainera, profesionalak osatutako talde batek aholkuak emango dizkie.

Horrela, bada, hainbat mintegitan hartu beharko dute parte. Mintegi horietan enpresa bat sortzeko beharrezkoak diren urratsen berri emango zaie. Era berean, euren ideien bideragarritasuna aztertu eta gestio-plana jorratuko dute 300 euroko beken bidez. Ondoren, enpresa abian jartzeko laguntza, etengabeko aholkularitza eta 300 euroko beka izango dituzte, hiru hilabeteetan, aurrera eroango diren ekimenei.

Azkenik aipatu behar da, iaz egin zen bezala, aurten ere enpresak sortzeko ideia edo ekimenen lehiaketa antolatzeko asmoa dutela Behargintzako arduradunek.



## Zamudioko Parke Teknologikoan elkartegi berria inauguratu dute

Azpiegitura elkarte Bizkaiko Foru Aldundiko Lan eta Trebakuntza Sailaren mende dago. Sozietate honek elkartegi berria inauguratu du Zamudioko Parke Teknologikoan. Eraikina Derioko lurraldeetan dago eta 2.500 metro karratu ditu. Bertan, 30 enpresarentzako tokia dago. Era berean, elkartegia modulutan zatikatuta dago eta proiektu berriek alokatu beharko dituzte.



## Derioko udalekua arrakastatsua izan da

Uztailaren 1etik 18ra bitartean, Derioko eskola udaleku bihurtu eta bertan primeran pasatu dute 7 urtetik 13ra bitarteko umeek. Horrela, bada, hiru astean hainbat ekitaldi egin dituzte: zeramikazko tailerrak, jokuak, irtenaldiak... Gainera, azken egunean jai handia ospatu zen eta herritik kalejiran ibili ziren, Portal 71 taldeak lagunduta.

Udaleku osorako izena eman beharrean, aste bat aukeratu ahal izan dute aurten Derioko umeek. Halaber, asteko egun bakoitza ekintza zehatz bati egon da zuzenduta.

Guztira, 63 ume eta sei monitorean bildu dira udalekuan. Esti monitorean esanetan, udalekua arrakastatsua izan da, aste baterako izena emateko aukera eman zaienez, ume gutxi falta izan baitira.

**ASESORÍA**  
Luis Fernando Aguirre, s.l.

---

Mateo Bidaurrazaga, 1  
Tfn: 94 453 33 28 - Fax: 94 471 06 28  
48150 SONDIKA (Bizkaia)

  
**HARAGITEGIA ALBERTO**  
Txorierriko etorbidea, 5  
Tfn.: 452 08 25  
48016 ZAMUDIO (Vizcaya)

**MARMOLGINTZA GOYO**  
SUKALDE-GAINEKOAK  
OBRAK ETA HILERRIAK  
Ugaldeguren I ind., 18-B nahka  
48160 DERIO (Bizkaia)  
Tfn.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

**LEANDRO LANDETA**  
  
**HARAGITEGIA-URDAITEGIA**  
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

**HOTELA JATEXENA**  
**ENTEE + EBOE**  
Oibar Gungosartxulo  
Arriaga sarea, 62  
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)  
Telefonoa: 94 453 41 17  
Faxa: 94 453 41 16  
E-mail: hotel\_ariaga-arriaga@telefonos.com

# Erdi aroa Zamudioko eskolan

Erdi Aroko azoka batez agurtu eben Zamudioko eskolakoeak 2002-03 ikasturtea. Urtero ikasturteari bukaera emateko antolatzen dan eskolako jaietan, aukera izan genduan irakasle eta ikasleek beren beregi prestatutako eta girotutako azokatik bueltatxo bat emateko eta makina bat behar egin ebela ikusteko. Detaile guztia-

kaz, barrez. Eguna pregoi eta antzerkitxo batez hasi zan. Gero azokea zabaldu zan. Irakasleak, ikasleak eta baita guraso batzuk be, eurek atondutako jantzi egoki-egokiakaz. Garaiko musikea, tresnak, zakuak eta arrandun banderak inguru apaintzeko. Idak eta galtzua be ez ziren falta.

Gela bakoitzak bere postua eukan. Batzuk fruta eta barazkiak, beste batzuk gaztaia, gatzatua eta ezia. Sendabedarretako bat, ogia, pastelak eta erroskillakaz beste bat. Txorizoak egiten batzuk eta konpota beste batzuk. Narruzko abarkak egiten be baegoazan eta mantelak egiten be bai. Eta 40º-ko tenperatura-aren efektua baretzeko tabernatxoa.



**Zerurena Jateetxea**

Enrementerri Kalea, 22  
Tfno.: 94 453 57 54  
Fax: 94 453 58 31  
48150 SONDIKA (Bizkaia)

**BAR TXIKI**

Lehendakari Leizola, 6  
48170 ZAMUDIO - Bizkaia  
Tel. 94 452 04 68

---

Restaurante

**SAN ISIDRO**

ESKUNTZAK, BATAUAK, JAUARITZEAK

Telno: 94 451 878 Fax: 94 451 118

Majalen Itzulia, s/ 25 4810080

**GAMINIZ**

RESTAURANTE

AITOR ELIZEGI

Zamudioko Parke Inkeologikoa Tel. 94 431 70 26  
Hozemna 717 Email: gaminiz@euskaltel.net  
48101 ZAMUDIOKO BIZKAIA www.gaminizsateakendri.com

# Txorierriko eskolen arteko pilota txapelketako finalak

Eguraldi ederra, jendea ugari eta giroa polita eta beroa, holangoxea eskatzen eben ikusitako partidu eder eta emoitza estuek eta. Ekainaren 22an Zamudion jokaturako finalak argi erakutsi eben Txorierrin pilota zaletasuna osasuntsu dagoela. Partiduen ostean, txapelketan parte hartu daben 118 pilotariek dominak jaso ebezan eta bukatzeko bertaraturako guztientzat koputxu bat prestatu eben antolatzaileek. Azken emoitza honek izan ziran:

## Txikiak

Txapeldunak: Ander Arrizabalaga – Mikel Lopetegi – Gorka Larrondo (Zamudio)

Txapeldunordeak: Julen Gaztelu – Antxon Ortuzar (Larrabetzu)

## Umetxoak

Txapeldunak: Jon Ordeñana (Derio) – Josu Artetxe (Lezama)

Txapeldunordeak: Irati Zorrozuza (Larrabetzu) – Ugaitz Atxutegi (Zamudio)

## Umeak

Txapeldunak: Julen Martinez – Adrian Lopez (Larrabetzu)

Txapeldunordeak: Inhar Astorkiza – Peio Mendizabal (Zamudio)

## Gazteak

Txapeldunak: Yerai Bermejo – Xabier Elorza (Lezama)

Txapeldunordeak: Ugaitz Basaras – Ibai Piko (Lezama)

## Kadeteak

Txapeldunak: Aitor Olivares – Ivan Flaviano (Lezama)

Txapeldunordeak: Ibon Arrieta – Markel Zabala (Lezama)

## Athleticek Zamudion hasiko dau aurre-denboraldia

Holanda aldera joan aurretik, ekainaren 29an, arrastiko 7,30etan Zamudioko kiroldegiko futbol zelaian jokaturako dau Athleticek aurre-denboraldiko lehenengo partidua. Ernesto Valverde zuzendutako talde zuri-gorriak aurtun 3. mailan jokaturako dauan Zamudio taldea izango dau aurrez.

## Txalet gehiegi Txorierrin

Otsailaren 28an Bilboko Metropoliaren Lurraldeko Plan Partziala aurkeztu zen eta Bizkaiko Foru Aldundia kezkatuta azaldu zen, Txorierrin eta Uribe Kostan txalet gehiegi daudelako. Horrela, bada, Lurraldeko Azterketarako Institutuak fenomeno hau hobeto ezagutzeko asmoz, azterlan bat egingo du. Urte amaiera baino lehen bukatuta egotea espero dute.

Azterlanak dentsitate txikiko urbanizazioak dituzten herriak ikertuko ditu. Gainera, aztertuko du ea biztanleak ohartzen diren eraikuntza hauek dakartzaten eragozpenez. Txostenaren egileek arazoa konpontzeko hainbat aholku emango dituzte.



**ARTIZAR**  
MARKOA JATZEKO TALEERRA

Jard. Ajarik, 3  
Tel. 94 453 01 50

48190 SONDIKA  
Bizkaia

**ERREKA** **ONDORIO**  
**ETXEA**

Ujrenko menu, azerriko menu berria, karta, espeser barakak, jantzerak, barakak

Arriaga, 80  
Zuzend. 48170 (Bizkaia)  
Telefono: 94 432 14 19  
Fax: 94 432 26 29

**LIBRERIA SONDIKA LIBURUDENDA**

ARTE IDIERRAK ESKULANAK, E.A.

**JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN**

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatza, prentsa, aldizkariak, liburua, pospurgatza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Fax: 94 453 16 77  
48190 SONDIKA (Bizkaia)

**CONDAT**  
LUBRIFIANTS

Tfnoa: 619 415 585  
J. A. Zabala

- Taladrinak
- Koipeak
- Deformazio olioak
- Mantenimenduzko olioak

# Txorierrik jaietan jarraitzen du

Txorierriko hainbat auzoetan jaiekin gozaten jarraitzeko aukera izango dugu abuztuan eta irailean. Larrondoko Elotxelerrri auzoan abuztuan egongo dira jaietan, eta Lezamakoek Santa Kurtzek ospatuko dituzte irailean. Beste alde batetik, Zamudion Sandoni eta San Bartolome, eta Sondikan San Roke jaiak izango ditugu. Dena dela, hauek adibideak baino ez dira eta erromeriaz erromeria ibiliko gara leku askotan. Ez dugu izan jai egitarau guztiak lortzerik, baina hemen dituzue Zamudio-Derioko Santimami, Zamudioko Sandoni, Sondikako Kurtze eta Derioko San Esteban jaietakoak.



## Santimamiko jaiak (Zamudio-Derio)

### Abuztuak 15, barikua

18:00etan Gorritiren eskutik poney-ak, zekorrak, basurdeak...  
20:30etan Tortilla lehiaketa  
21:00etan Sardina jana  
22:30etan Berbena, Arizgoiti taldearen eskutik

### Abuztuak 16, zapatua

10:00etan Kalejira txistulariakaz  
11:00etan Puzgarriak, egun osoan  
12:00etan Meza baselizan. Bertokoren emanaldia  
14:00etan Sukalki txapelketa  
16:30etan XI. mus txapelketa  
20:30etan Erromeria, Ene Bada taldearen eskutik

### Abuztuak 17, domeka. Santimami eguna

11:00etan Meza  
12:30etan Bertokoren emanaldia  
13:00etan Nagusientzako lunch-a

## Sandoni jaiak (Zamudio)

### Irailak 2, martitzena (Sandoni eguna)

12:00etan Meza ermitan. Ondoren, nagusientzako omenaldia.  
13:00etan Dantza emanaldia Zamudioko Iru-Bat taldeagaz.  
16:00etan Mus txapelketa.  
18:00etan Gorriti eta bere animaliak.  
21:00etan Dantzaldia Eguzki taldeagaz. Ondoren, txokolatadea danontzat.

### Irailak 3, eguaztena (Sandonitxu).

12:00etan Meza ermitan  
20:00etan Idi-probak Aranoltzako probalekuan  
22:00etan Dantzaldia Eguzki taldeagaz. Ondoren, txokolatadea danontzat

## Santa Kurtze jaiak, Larrabarrena parkean (Sondika)

### Irailak 13, zapatua

11:00etan Kalejira Ipar Elaiak txistulariekin  
12:30etan Trial Bike erakustaldia  
18:30etan Behi-heziketaren erakustaldia  
20:00etan Jazz kontzertua, Mac Jeara's bandaren eskutik  
23:00etan Kontzertua, Kepa Junkeraren eskutik

### Irailak 14, domeka

10:30ean Kalejira trikitilariekin  
11:30ean Meza Santa Kurtzeko baselizan eta ohorezko aureskua  
12:00-14:00/16:00-19:00 Haur-gazteentzako parkea  
18:00etan Txorizo dastatze herrikoa  
18:30ean Dantza erakustaldia



## San Esteban (Derio)

### Abuztuak 2, zapatua

12.30ean Meza Nagusia, San Estebanen omenez.  
14.00etan Sukalki txapelketa.  
18.00etan Artzain Txakurren II. Txapelketa.  
20.30ean Tortilla txapelketa.  
23.00etan Erromeria, Amaiur taldeagaz.

### Abuztuak 3, domeka

12.30ean Meza Nagusia herrian hil diran guztien alde.  
14.00etan Paella txapelketa.  
18.00etan Idi probak.  
20.00etan Azken traka.

## ZAMUDIOKO ESTANKOA

Tabakoak, linbrea eta opariak

Talferri kalea. 5 ZAMUDIO  
Telefonoa: 94 452 12 73



Erromeriarri, 11 48150 Sondika  
Telefonoa: 944 521 928



Ero askotako pintxoak - Plator konbinatuak  
500mltik gora  
Torrón Kalea, 9  
48150 ZAMUDIO (Sondika) Tel. 94 452 28 75



## Jose Miguel Etxeandia larrabetzuarra espetxeratu dute

Uztailaren 4an, Mexikon atxilotu eta Espainiako Estatura kanporatu zuten Jose Miguel Etxeandia larrabetzuarra, Mexikon legez kanpoko egoeran zegoela argudiatuta. Madrilera ailegatu bezain laster, Guardia Zibilak preso hartu zuen eta hiru egunez eduki zuten bakartuta euren kuartel nagusian.

Hilaren 8an, epailearen aurrean deklaratu zuenean, torturak salatu zituen. Ondoren, Soto del Real kartzelan sartu zuten preso.

Bakartuta izan zen egunetan informazio-asanbladak, konzentrazioak eta manifestazioak izan ziren Larrabetzun.



## Larrabetzuko batzokia inauguratu dute

Herritarrentzat martxoaren 1ean ireki bazen ere, Larrabetzuko batzoki berriaren inaugurazio ekitaldi ofiziala uztailaren 12an izan zen. Batzokia uriko plazan dago eta bertara Txorierriko alkateak eta EAJko kideak batu ziren. Haien artean, Xabier Arzalluz EBBeko presidentea ere izan zen. Protokoloa bete ondoren, lunch-a eta bazkaria eskaini zitzaizkion jendeari.

Lokal berria taberna-jatetxetzat erabiliko da, eta, gainera, alderdiaren barruko jardunerako tokia ere izango du.



## Zamudio - Posada de Llanes bizikletan

Aspaldiko urteotan egin izan dan moduan, aurtan be, Zamudioko txirritularizale talde batek (hamar lagun) Zamudio eta Posada de Llanes arteko ibilbidea egin eben bizikletaz uztailaren 5ean.

Hainbat zamudioztarrek inguru hartan jatorri izateak indarra emon deutso ekimen honi (inoiz etorri dira handik hona be) eta zeozelan ofizialdu be bai. Posada de Llanesera heldu, eta gure herriko eta bertoko agintariek opari batzuk aldatu ebezan. Gero hemendik kotxez joandakoakaz afaria eta parrandatxoa egin eta hurrengo egunean ausartenak Covadongako lakuetara igon eben bizikletaz.



**LEIRE BEGOÑA**

**ILEAPAINDEGIA**

UNISEX ILEAPAINDEGIA  
SOLARIUM BERTIKALA  
ESTETIKA  
ORDUTEGI JARRAITUA

MUNGIA DE ESTORBIDA, 20 - TEL.: 94 451 26 72 06090

**ZAMUDIO MOTOR** IDENTICA

94 452 1616  
94 452 1646

Pol. Torrelagoiti  
Pab. 6, Bloque 3  
48170 ZAMUDIO  
BIZKAIA

**hotela jatetxea aretxarte**

Teknologi Parkea - Erakuntza, 200  
48170 ZAMUDIO - (BI7KAIA)  
Telefonoa: 94 403 69 00  
faxa: 94 403 69 01  
e-mail: hotel@aretxarte.com  
e-mail: reservas@aretxarte.com  
www.aretxarte.com

**Kudeaketarako Sozietatea**  
**Birziklatzeko Zentro Aurreratua**

**SOGECAR**

**Tratamendu lerroak**

- Erabilitako olioak
- Agortutako taladrinak
- Disolbatzalleak
- Automozio

**hondakinen kudeaketa osoa**

Torrelarragoiti Ind. z/g 48170 Zamudio  
Telefonoa: 944 977 177 - Faxa: 944 522 619

# Egunkaria-tik Berria-ra Txorierrin

Otsailak 20. Ahaztu ezinezko eguna. Telebistako irudiek, non Torreal dai zera-maten buru makur detenitua, euskalgintza osoa asaldatu zuten. Euskararen alde-ko mugimendu osoa umildu gura izan balute bezala.

Harridurak ez zuen limiterik ezagutzen, handitzen joan zen, "Euskaldunon egunkaria" itxita, 10 detenitu, denak pertsonaia ezagunak. Batzuk torturatuak, bat ospitale-  
ra, denak umilduak. Gerora 3 kartzelan, bat Erandioko Goierriztarra den Xabier Oleaga ezaguna.

Antolatu beharra zegoen, eta Euskal Herri osoak bezala, Txorierrik ere erantzun egin du.

Zamudion egindakoa Lagatzuko kide batek laburbiltzen digu: "Zarratu eta segituan Lagatzutik herriko beste taldeak konbokatuz genduzan, hasieran kontzentrazioak egiteko. Orriak eta kartelak banatu genduzan herriko egoera azaltzeko. Pilota partiduetan "Egunkaria zabaldu" eslogana jarri eben pilotari batzuek. Zamudioko Futbol Klubak be parte hartu eban eta ligako partidu garrantzitsuenean jokalaria pankarta batezaz urten eban. Urtero egiten dogun euskal asteko mahaingurura Martxelo Otamendi ekarri genduan."

Herriko alkarteak hartu-emonak izan doguz akzioak saltzeko eta nahikotxo lortu be. Ekainaren 22an, lagatzu egunean, urtero legez, euskararen aldeko saria emon dogu, aurtun Egunkariari emon deutzagu, egindako lanagatik. Langileen ize-  
nean Gotzon Herмосilla, Bizkaiko Berriaren arduraduna (lehen Egunkarioko) etorri zan".

Derion ere lan berezia egin da: "Batordea AEK eta Tximintx-en artean eratu ostean. San Isidroko azokan, txakolina eta barazkien artean, materiala eta akzioak saltzeko postua jarri genduan. Kontzertu berezi bat antolatze-ko ideia sortu zan, eta atzerapen batzuen ostean, azkenean maiatzaren 31n, "Egunkariaren jai" antolatuta genduan. Arrastian proiektu barriaren aurkezpena egin zan Kultur Aretoan, ostean Txorierriko dantza taldeen ekitaldia. Bertan aprobetxatu genduan Xabier Oleagaren aitari lore sorta bat eskaintzeko.



Xabier Oleagaren aitak lore sorta jaso zuen Egunkari egunean Derion.

Gauz kontzertua, Derion aspaldian gogoratzen dan handienetarikoa. Seiurte, Gatibu eta Urgabe taldeakaz. Jaiak Derioko Udalaren laguntza izan eban. Txosnetan ateratako diruagaz akzioak erosi dira.

Amaitzeko esan behar dogu uztaila hasieran Derioko taberna eta talde kultural guztiei karta bana bialdu deusegula, Berria-ren harpidedunak egin daitezaz gonbidatzeko, edota akzioak erosteko".

Larrabetzutik esan digutenez: "Egun berezietan, San Isidro, Txakoli eguna, Bizkargi eguna, Eskoletako urteurrena eta abar, kamiseta eta pinak saldu doguz. Herri batordea eta laguntzaileen bitartez akzioak saldu, taberna eta denda mailan harpidedun kanpaina eroan dogu aurrera eta ekainaren 27an BERRIA egunkariaren aurkezpena egin genduan, ahaztu barik hasierako kontzentrazioak eta Donostiako manifestaziorako antolatu ziran autobus biak. "

Honaino Txorierrin egindakoaren laburpena. Hurrengo batean hemendik aurrera egin beharrekoa, zeren hau ez da amaitu.

Testua: J.A. Mentxaka



Kirolari gazteak Egunkariaren alde.



Gotzon Herмосilla Lagatzuren saria jasotzen.



Seiurte taldea kontzertuari hasiera eman zion.

Gatibu, euskal musika taldea

# “Bizitzaren gatibuak gara”



## Nola sortu zen musika proiektu hau?

Guk biok *Txulifrina* eta *Arrosa* diskoa atera genuen, baina, egia esan, proiektu horrek ez gintuen betetzen. Orduan, lanean hasi ginen, beste zerbait egitea merezi zuelakoan. Kasete zikina erosi eta Alexen dendan konposatzen hasi ginen gitarra akustiko batez. Abesti batzuk itxuratuta, taldea sortzeko garaia zela pentsatu genuen eta hartan ibili ginen. Azkenean, Mikel (baxu-jolea) eta Gaizkagana (bateria-jolea) jo genuen eta haiek proiektuan parte hartzea onartu zuten.

## Eta zergatik Gatibu?

Talde bati izena ipintzen zaionean, hitzen bat agertu ohi da eta guri Gatibu etorri zitzaigun. Nahiz eta hasiera batean guztiak ados egon ez —ez zen Haimarren gustukoa—, azkenean horrela gelditu zen kontua. Gatibu hitzak esanahi bi ditu; bata txarra da, esklaboa, eta bestea, berriz, ona, katigua. Berau gustatu egiten zaigu. Azken batean, edozein gauzaren gatibu gara: bizitzaren gatibu, nesken gatibu, kalearen gatibu...

## Martxoaren 7an taldearen aurkezpena egin zenuten Bilbon. Harrezkero arrakasta itzela izan duzue leku guztietan... Zelan hartzen duzue hori?

Datorren bezala. Kontzertu asko eman ditugu dagoeneko, eta pozik gaude, lana baita. Jendeak gu ikusteko gogoia izan omen du... Dena dela, saiatzen gara jende asko bil daitekeen lekuetan ez jotzen. Ondo moldatzen gara, talde bikaina daukagulako kontzertuetan: beste gitarra-jole bat, alboka-jolea, teknikaria, errepidean laguntzen diguten lagun bi...

## Exkixu taldeak eragina izan du arrakasta horretan?

Alde batetik, bai. Batzuek Exkixuren ahotsa erreferentetzat daukate. Beste batzuek, berriz, Gatiburekin egin dute topo lehenengo aldiz, eta ez dute talde bata bestearekin lotzen. Gatibun Exkixuren eskarmentua baino ez dago; jendea, estiloa eta disketxea ezberdinak dira. Arrakasta entzuleengandik etortzen da eta, proiektua ona izan arren, entzuleek ez bazaituzte onartzen, akabo!

## “Gatibun Exkixuren eskarmentua baino ez dago”

## Gatibu taldeko kideok hainbat proiektutatik zatozte. Hori nabaritzen da konposatzeko orduan?

Erabaki garrantzitsuak geuk biok hartu ditugu orain arte, baina, noski, Gaizka eta Mikelen ekarpenak kontuan hartuta. Horrela, bada, eurak gurekin egon ezean, Gatibu taldea ez litzateke berdina izango. Haimarrek melodia ateratzen du eta hitzak idazten ditugu gero. Lan handia dago abestiei azkeneko zehaztasunak eman arte. Diskoa grabatzean ere soinu edo erritmoren bat agertzen da beti... Horrexegatik, konstantea izan behar da. *Zoramena* diskoa nahiko estilo arinekoa dela uste dugu, pozik gaude. Beste alde batetik, hitzen esanahiari dagokionez, bakoitzak nahi bezala uler ditzakeen abestiak egin ditugu; kalea, jendea, maitasuna, bizitzeko moduari buruzko abestiak.

Martxoaren 7an taldearen lehenengo diskoa aurkeztu zuten Bilboko Kafe Antzokian. Harrezkero, salmentak primeran joan dira eta Euskal Herriko herri gehienetako jaietan jo dute. Txorierrin ere hainbat aldiz izan ditugu. Alex (kantaria) eta Haimar (gitarra-jolea) dira proiektu honen sortzaileak. Eurekin egon gara solasean Gernikan.

## Robe Iniesta eta Fitoren kolaborazioak izan dituzue diskoan. Luxu handia, ezta?

Bai, musika munduan goi mailako postua dutelako Euskal Herrian nahiz Estatuan. Beste bati eskatuz gero, birritan pentsatuko zuen, baina hauek oso-oso eskuzabalak dira. Lau edo bost abestiren artean bana aukeratu zuten. Oso esperientzia ona izan da, diskoa aberastu egin dutelako euren estiloarekin. Gainera, haien artean ere polita izan da, inoiz ez dutelako euskaraz ezer egin... Eta bizkaieraz, are gutxiago! Luxu handia, bai.

## Zelan datorkizue uda?

Ekaina nahiko gogorra izan da, kontzertu asko eman ditugu eta. Uztaila eta abuztua lasaiagoak izango dira. Euskal Herri osotik ibili gara eta harrigarria gertatu zaigu plazak jendez gainezka egotea. Horretaz gainera, Gipuzkoan edo Araban egonda, jendeak bizkaieraz abesten entzutea pasada itzela izan da guretzat. Ikusmina dela eta, kontzertu dezente eman behar izan ditugu aurten, baina datorren urtean hobeto hautatzeko asmoa daukagu. Jendeari ahalik eta kalitaterik onena eskaini behar zaiola pentsatzen dugu eta.

## Etorkizunera begira...

Laster geratuko gara berriro eta poliki-poliki abesti berriak sortzen hasiko gara, presa barik.

[www.gatibu.net](http://www.gatibu.net)

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

# Etxetik kanpo bizitea asko kostetan da, baie merezi deu

Testua eta argazkia: Oihana Irati Astobieta

Hasieran bildur nintzen, baie apurke-apurke ohitu nintzen hango bizimodure. Holako esperientzi bategaz norbera hazi egiten da eta gauzek ikusteko modue kanbia be bai.

Euskal filologia ikisten nabil Gasteizen. Lehelango urten, Txorierriko gazte askon modun, autobusez joan eta etorri ibiltzen nintzen egunean-egunean. Goizean goizetik izertu behar izeten nintzen 7:30etan Bilbon autobuse hartzeko eta, bokata bat jan eta osten, arrastiko 5atan ailegetan nintzen etxera.

Hainbeste denpora alperrik galduteagaz eta egunero bokata jateagaz gogoitute, pisu batera joatea erabaki nendun. Klaseko lagun baten bitartez (Alazne) beste neska bigaz (Ianire eta Judith) batu eta laurok alkarregaz bizten para gintzezan bigarren kurtsoan. Hasieran bildur izen nintzen (etxetik kanpora joan behar izana, bertako geuze asko albo batera itxi beharra, pisukideak be ez neduzen ondo ezetan,...), baie apurke-apurke ohitu nintzen hango bizimodure.

Pisure heldu eta lehelango geuze logelen zozketa izen zan. Niri handiena toka jaten eta pozik, baie handiena gero hotzera be izen zan eta kalefazino konpondu arte komerik! Ordun jakin nendun zergaitik esaten dotzien Siberia-Gasteiz!

Etxeko beharrak egiteko ederto konpon-tan gara pisuen. Ez doguz txandak egiten beste pisu askotan lez, guk jatordu baktxean laurok hartuten dogu parte. Batek jatekoa egiten badeu, besteak harrikoa egin eta sutea garbitu. Etxea garbitako, baktzak bere gela egiten deu eta garbuzikoa banandu egiten dogu, astero baktzak geuze bat behin sutea, hurrekon karrejua, gero esku-



Primeran moldatzen da Oihana pisukideakaz.

sedua,...). Nik neuk asko ikisi dot holako beharrakaz. Han ikisi dot, adibidez,jatekoa prepartetan, hara joan aurretik, ez nendun gauze askorik egiten-eta.

Konbibentzie ez da pisukoakaz bakarrik izeten, auzokoakaz be bai. Guri auzoko sano xelebreak toke jakuz. Azpiko pisukoa, esate baterako, alargune bera, egun guztien kantetan egoten da eta egunez ikisi gure badogu, bera siestan egon arte itxaron behar. Gauez be ez da fazile ixiltasune egotea, etxe ondoan mozkor asko egoten direzelako zarataka eta behin mutil bet bertotan be entzun gendun.

Ikisi bai, baie eguenatan juergak be egiten doguz Zapa(terria) eta Kutxi(llerria)-tik, nahi-te hurrengo egunean klasera erdi lo joan behar izen. Azken baten esan gure dot, ondo pasateaz aparte asko ikisten dala eta, benetan, merezi deueta. Ikasle guztieri esango neuzkie, ahal badeurie ikasle-pisu batera joan deitezela, pilo bat ikisko deurie-eta.

**Oharra:** Testu hau Txorierriko euskaraz argitaratu dogu, bertoko euskerea mantendu gurean, egileak horrela eskatu deusku eta.

**NIRE AUTO**  
Nire Auto  
SANTIMANI 6  
TEL. 68870611  
64967113  
AUTOEN IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

**Especialitateak:** 7etatik irekia  
Pintxoak  
Plater konbinatuak  
Bereziak eta ur-fiaziozko iberritxoak  
Auzoak: Leizorikaren plaza, 2  
48100 Zumaia  
Tel. 94 456 57 62  
Zattudio

Joana Lara \* Artisaua

# “Oso zorrotza naiz neure buruarekin”

Zamudioko 24 urteko gazte honek Arte Ederrak ikasi ditu, eskuekin sortzea gehien gustatzen zaiona da eta. Artisautza hobytzat daukala esaten badigu ere, hainbat azokatan hartu du parte eta familiarentzako zein lagunentzako enkarguzko lanak egiten ditu aspalditik. Gainera, irakasle ibili da aurten Bilboko Udalak antolatutako zumezko tailerretan eta datorren



urtean esperientzia errepikatu nahiko lukeela aitortu digu. Orain, serigrafia enpresa batean dihardu, artisautza munduan lekua izatea oso zaila dela jakin badakielako. Hala ere, ez du baztertzen artisautza bere lanbide bihurtzea etorkizunari begira.

## Zelako lanak egiten dituzu?

Fakultatean teknika asko ikasi arren, hemen ezin ditut guztiak jorratu makina bereziak beharko baintuzke. Hori dela eta, zume, egurra, buztina eta margoekin egiten dut lan, gehien bat. Hasieran, niretzako gauzak egiten nituen, baina jendeak nire lana gustukoa izan omen du eta enkarguak egiten dizkit: zumezko altzariak, zeramikazko lepokoak, hautsontziak, akriliko margolanak... Zaharbertzeren bat edo beste ere egin dut.

## Lehengai horiek garestiak izango dira, ezta?

Denetarik dago. Buztina, adibidez, ez da garestia, baina pieza bat bukatzeko behar diren beste material batzuek, esmalteak adibidez, dirutza balio dute. Beste alde batetik, zumea buztina baino garestiagoa bada ere, ura, artaziak eta berniza baino ez dituzu behar berarekin lan egin ahal izateko. Orduan, merkeago ateratzen da.

## Zenbat denbora ematen duzu pieza bat egiten?

Ezin da kalkulatu, lan bakoitzak bere konplexutasuna dauka eta. Zeramikazko

edozein gauza egiteko prozedura bati jarraitu behar diozu: koloreak prestatu, distira eman, sikatu, labera sartu... Eta prozedura horrek denbora behar du. Zumezko ogi-saski bat 30 minututan egin dezakezu; aulki bat, berriz, bi ordutan... Arazoa lan horri salneurria jartzerako orduan izaten duzu, materialak eta zailtasuna kontuan hartu behar dituzu eta.

## Enkarguzko lanak egiteaz gain, azokatan ere ibiltzen zara; zelan salmentak?

Orokorrean gutxi saltzen da. Zeramikazko lanak zumezkoak baino hobeto saltzen dira begien bistan politagoak direlako, agian. Gainera, pieza bakarrik direnez ez dituzu beste leku batean aurkituko. Nik bi mila lepoko egin ahal ditut eta guztiak ezberdinak izango dira... Dena dela, azokak oso onuragarriak dira baten batek zure lana ikusi eta enkarguren bat agindu ahal baituzu, nahiz eta ezer ez erosi momentu horretan.

## Baina merezi du joatea?

Nire lanbidea izango balitz ez, irabazirik ez baita ateratzen. Gainera, eguraldi txarra izanez gero, negar egiteko gogoia izaten duzu askotan. Ni joaten naizen azo-

ketan txakolin-egileek eta baserritarrek baino ez daukate sari bat eskuratzeko aukera. Horrela, bada, artisauoi ere gure lana, era batean edo bestean, errekonozitu beharko litzaigukeelakoan nago. Orduan ez legoke txarto guri ere sariren bat ematea parte hartzeagatik. Nire lehen-dabiziko azokan, Erandio Landan hain zuzen ere, bigarren saria eman zidaten duela lau urte...

## Dena dela, hobby lasaigarria da aukeratu duzuna...

Oso, gainera. Hala eta guztiz ere, azken orduko arazo txikiek buruhauste bat baino gehiago eman diezazkizukete. Ni oso zorrotza naiz neure buruarekin. Besteek lana primeran dagoela esan diezadakete, baina nik hobetu behar den zerbait topatzen dut beti. Azkenean, amaitutzat eman behar dut lana, bestela ez nuke inoiz bukatuko.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

# Urarekin jolasean

Testua: Belen Gana / Argazkiak: UR taldea

Uda honetarako proposamen eta ideia ugari izango duzue buruan. Esaterako, inguruko herrietako jai guztietan parte hartzea, hau da, jaietako bira, edota Euskal Herria ezagutzuz jarraitzeko asmoz, oraindik ezagutzen ez dituzun paraje horietara joatea, landa-turismoa egin edo kanpina hartuta, hortik zehar ibili, edo oinez GR11 egitea Pirinioetatik edo bizikletaz AEKko barnetegi ibiltarian euskara praktikatzuz, edo oraindino urrutirago bidai agentziaren zerbitzuak kontratatuz edo...Batek daki, aukera andana dago ideia, estilo eta "poltsikoaren" arabera.

Oraingo honetan, proposamen bat egitera gatoz: egun baterako edo asteburu baterako edo, behar bada, denbora gehiagorako, abentura eta kirola nahastea eta uragaz jolastea eta disfrutatzea. Horretarako, zer hobeago eta errazago UR kirol taldeak eskaintzen dizkigun aukerak ikusi eta parte hartzea baino?

Gugandik hurbil dagoen UR taldea duela 13 urte sortu zen eta uragaz disfrutatzeke hamaika ekitaldi antolatzen dituzte, norberaren mailari egokituak. Kalitate eta ziurtasun maila handia eta landua erabiliz –adibidez, monitoreen trebakuntza eta puntako tresneria ikustea baino ez dago—.

Baldintza bakarra urarekin disfrutatzeke asmoa izatea da. Hortik gora adrenalinareen termometroa edo erlaxatzeko ibilbidea zeuk aukera dezakezu.

Eskaintzen dituzten ekitaldi ugarien artean, aukera zabala dute, oinarritzko ikastaroetatik hasita, rafting-a , ur bizieta-



Piraguismo egiteko aukera eskaintzen digu UR taldeak.

**Aikor!**  
Txorierriko aldizkaria

**Aikor! aldizkariak  
Txorierriko  
irakurle eta  
komertzio guztioi  
uda eta jai onak  
opa dizkizue**

**TOLDOS  
ZAMUDIO S.L.**

- Toldoak saldu eta alokatzea
- Toldoak konpondu eta ipintzea
- Eguzki toldoen mantentze lanak

**Eskatu aurrekontu  
konpromiso barik**

Pol. Torrelarragoiti P-6 A-4  
48170 Zamudio (Bizkaia)  
**Telf. 94 452 35 85**

**Mead**

**Mead Embalaje S.A.**

San Martin, 28  
48170 Zamudio - Bizkaia

☎ 34 - 94 452 38 48  
34 - 94 452 35 16

Telefax 34 - 94 452 20 88  
34 - 94 452 20 22

e-mail: lcs3@mead.com

tik jaitsierak, itsas kayak, surfa, ibaietatik ibilbideak –honetan gugandik hurbil dagoen ospetsuena Urdaibaiko Oka ibaitik ibiltzea da, Txorierriko gazte asko horren testigua dira—. Gainera, eskalada, zubi-jauzia, tirolina, arkuz tiratzea eta bes-telako zirkuitu kulturalen eskaintza ere egiten dute inguruak ezagutaraztearren.

Ekitaldiak mailakatuta daukate; has-tapenerako bi maila daukate, I. maila (12-16 urte bitartekoa) eta II. maila helduentzat; gero III. mailak praktika eta gaitasun fisiko minimoa eskatzen du, hortik gora, teknika eta segurtasuna hobetzea eskatzen duenez, aurretik, ikastaro batzuk ere eskaintzen dituzte.

Ekintzak goizez edo arratsaldez izaten dira eta biak uztartzeko aukera ere ego-

***“Igerian jakitea komenigarria da, baina ez badakizu, toki seguruan ipiniko zaituzte kanoetan lasai ibil zaitezten”***

ten da, gainera, norbanakoa edo taldeka izan daitezke.

Gugandik paraje dagoz, Urdaibain Laida aldetik edo, Sukarrietara joanez gero, bestaldera txalupaz itsasadarra zeharkatu beharko dugu; horrek ere aurretik aberasten du txangoa. Igerian jakitea komenigarria da, baina ez badakizu, toki seguruan ipiniko zaituzte kanoe-

tan lasai ibil zaitezten. Gainera, beti erabiltzen dute txalekoa, arriskua saihesteko. Hori, bai, marea zelan dagoen eta libre dagoen ala ez jakitearren, hobe duzu aurretik deitzea.

Horrez gain, kilometro batzuk eginez gero, beste bi aukera eder daukazu. Bata Murillo De Gallego da; bertan, rafting-a egiteaz gain, Pirinioetatik ibilaldiak eta Mallo ospetsuak gozatzeko eta, prest bazaude, eskalatzeko paradisua daukazu. Eta beste posibilitate bat Ebro Garaian daukazu, Arroyo Pesqueran.

Informazio gehiago nahi izanez gero, hona hemen helbideak URDAIBAI- 94 627 66 61 eta Zentrala 94 4790 656 non informatuko zaituzten atsegín handiz: [www.ur2000.com](http://www.ur2000.com)



Arku-tiroan ere saia gaitzeko.



Urdaibai leku ezin hobea daukagu abenturazko kirolak egiteko.

**ATSEDENERAKO EKIPOAK. % 100 LATEX NATURALA**

10 URTEKO BERMEA. EDOZEIN OHETAN ERABILGARRIAK

**ARTEAGA**

**KOLTZOI- DENDA**

**Antzinako Derioko Seminarioa**

**DERIO**

**Telefona: 94 454 51 47**

**ORDUTEGIA:**

Astelehenetik larunbatara

10:00tik 13:00era

eta 16:30tik 20:00ora.

Igandeetan 10:00tik 14era



***“Atsedena gure berezitasuna”***



# Hori bai elkartea 1965 – 2003 laino guztien azpitik eta sasi guztien gainetik

Imajinatu Euskal Herriaren Historia bi hitzetan kontatu behar duzula. Begi-bistan denez, Europako herririk zaharrenetariokoak eskertuko luke bere kondaira laburbilduta esateko kontalari objektiboa eta komunikatzaile ona izatea. Beno, beno, imajinatu orduan, orri apurretan, txorierritar guztiontzat, gure euskarazko aldizkariaren bitartez, Larrabetzuko Hori Bai elkarteari buruzko idazlana prestatuko dugula. Jakina, Euskal Herriko gaztetxeen aitzindariak, kasik berrogei urte-tan zehar egindako ibilbidearen nondik norakoak ezagutzea eta testigantza ugariak jasotzea, derrigortzat jotzen du.

Zehazki esanda, hauxe da egin duguna. Batzuk eta besteak kontaktutakoak bildu, informazioaren irakurketa zintzoa egin eta elkartearen jaiotzatik gaur egunera arte bizi izandako egoera gazi-gozoak, bitxikeriak, lan dinamika, ametsak, ekitaldi bereziak, aldarrikapenak eta abar luzeko historia, paperean jarri.

## Gazte eguna 03

Ez dago lan xamurra atzamar artean, baina hari batetik tiraka hasteko, 2003ko Gazte Eguna aukeratu dugu abiapuntu. Larrabetzuko zein inguruko herriko hormak eta bazterrak ikusita, Hori Bai



elkartearen azken barrabaskeria eskura dugula sumatu daiteke. Iragarkirako kartelak dienez, BIZI GARA leloak gaztetxeen aldeko aldarrikapena izango du nagusi aurtengoan ere. Hainbat egunetan gozatu ahal izango gara kalejirez, mahai-inguruez, hitzaldiez, poesiaz, euskal pilota partidez, bideo emanaldiez, herri bazkariak, antzerkiak, erromeriaz, kirol olinpiadez, musika kontzertuak eta hainbat jardueraz, amets egiteko tarteari aukera emanez.

*“Hainbat egunetan gozatu ahal izango gara kalejirez, mahai-inguruez, hitzaldiez, poesiaz, euskal pilota partidez, bideo emanaldiez, herri bazkariak... amets egiteko tarteari aukera emanez”*

## Larrabetzuko Andra Mari jaiak


 **Remirez Instalaciones S.L.**

**ENPRESA INSTALATZAILEA:  
BEROGAILUA, GASA ETA URA**

Iturrikoetza,3  
48195 LARRABETZU (Bizkaia)  
Tel/Fax: 94 455 82 96 / 606 39 33 46 - E-mail: reinsta@euskalnet.net

**IRUSTA TABERNA**

EGUNEROKO MENUAK  
eta GAUEZ  
MUSIKA ETA PARRANDA



LARRABETZU  
Tel: 94 455 84 77

Moro's Pub

**Akzio bidezko diru bilketa**

**5.000.000 €**  
behar ditugu  
Eskuratu zure akzioak

300 euroko akzioak  
Akzioak eskuratzeko sei hilabeteko finantziaketa sutsuaren

50 euroko akzioak  
Ordainketa bakar bat

**berria berri**

Eskuratu zure akzioak:  
Herri batzordeetan / [www.aktsa.net](http://www.aktsa.net)  
635 723 283/635 720 806/941 30 35 55/943 30 35 54



## 80ko hamarkada

Baina ametsaren jatorria ezagutzeko 80ko hamarkadara jo behar da. 1981-1982 urte bitartean, eliza ondoko lokalean narriadura arrastoak handitzen zihozten eta garaiko zuzendaritza batzordeak ezohizko batzarrera deitu zituen elkartekideak egoitzaren egoeraz eztabaibatzen eta, zorrotasunez, erabaki bateratu hartzeko: zabalik jarraitu edo zarratu. Ullergarria denez, aldeko eta kontrako iritziek talka egin zuten, eta gazteagoen haserrea agerian geratu bazen ere, azkenean ateari giltza ematea adostu zen. Hurrengo bost urteetan gazteek ez zuten lokala erabili eta bitartean, taldeko dinamizari jarraipena emateko, Udalak utzitako gela erabili beharra zegoen.

Egoera deseroso honek berriro piztu zuen betiko lokalera bueltatzeko grina, eta ardurak lepoan hartuz, konponketa eta garbiketa lanari ekin eta 1986ko abenduaren 24an berriro zabaltzea lortu zen. Bide batez, lokala berreskuratze bidean zegoela, rock musika jaialdia egiteko ideia ernaldu zen. Hori Bai elkarteak betidanik hartu du Inazio Deunaren eguna bere jai nagusia prestatu eta ospatzeko, baina 1985eko uztail horrek, elkartearen 20. urteurrena eta lehen Gazte Eguna bateratu zituen.

***“1985eko Inazio  
Deunaren egunean,  
elkartearen 20.  
urteurrena eta lehen  
Gazte Eguna bateratu  
ziren”***



Beste herri ekimenen artean, Kartoizko Banda ere sortu zen Hori Bairen eskutik.

## 90eko hamarkadaren bidean

Harrezkero, beste aldaketa garrantzizkoak etorri ziren. Lehena, Hori Bai elkartearen lokala Gaztetxea deitzera pasatu izana. Izendapen honek badu bere mamia. Garai hartan (1985-1986), hainbat herritako gazte taldeak arazo larrian zebiltzan euren lokalekin. Udalaren aginduz, asko egoitzetatik kanporatuak izan ziren eta ondorioz, elkartasun ikuspegi batetik, Euskal Herriko Gaztetxeen Koordinakundea sortu zen, egoerari bere osotasunean erantzuteko.

Bigarrena, urteroko rock musikaldia indarra eta ospea hartzen zihozan, ekinaren poderioz, baina jai giroa ez zen herritar guztien gustukoa, eta Udalak, horretaz

jabetuta, ekitaldia ekiditeko neurriak hartu zituen, jarduera eteteko agindua bideratuz Hori Bai elkarteari. Egoera bitxiaren aurrean, alkatea eta zinegotzi batzuk barne direla, batzar nagusi batera deitu zuten herria, Udalak jarritako baldintzak aztertzeko: Gaztetxean musika kontzerturik ez egitea eta, horren truke, plazan, urtean zehar bi edo hiru musika ekitaldi egiteko baimena eman. Baldintzak onartu ezinak zirela eta, Udalaren eta Hori Bai elkartearen arteko liskarrak 1992ra arte irauten du, eta orduetik hona, herriko erakundeak dirulaguntza publikorik bideratzen ez dienez, bere buruaren kudeaketa mantentzeko, sosak beste bide batzuetatik lortzen saiatuko dira.

## Larrabetzuko Andra Mari jaiak



Hirugarrena, 90eko hamarkadan Gazte Egunaren antolaketak urrats handia eman zuen kuantitatiboki zein kualitatiboki. Larrabetzuko Gaztetxea KGB (Bizkaiko Gaztetxeen Koordinakundea) barruan zegoen eta 1993an, herrian gaztetxeen eguna ospatzea ebatzi zen. Jendetza izugarria biltzeko aitzakia ederrari musikarien indarra erantsi behar zaio: Fermin Muguruza, Konba, Etsaiak, Su ta Gar, Angelics Upstars...

***“Oker dabil Hori Bai elkartearen jarduera Gazte Egunera bakarrik mugatzen dela pentsatzen duena”***

#### **Ohizko jardun historikoa**

Orain artekoa irakurrita, oker dabil Hori Bai elkartearen jarduera Gazte Egunera



Herrian euskal kultura suspertzea izan da zeregin handienetako bat betidanik.

bakarrik mugatzen dela pentsatzen duena. Egia da, kanpora begira, azken hamarkadan ekitaldi honek duen oihartzunak ez duela parekorik elkartearen jardunean, baina ukatu ezina da, baita ere, herriari begira, urte barruko egitarauak dakarkion aberastasuna. Gabonetako kultur hamabostaldia, inauteriak, San Joan sua, Arrizuriganera igoera, antzerkia, mahai-inguruak, San Migel tontorreko mus eta briska kartaldiak dira, besteak beste, adibiderik argienak.

***“Ukaezina da, urte barruko egitarauak herriari dakarkion aberastasuna”***

Historikoki, gainera, joera berdina izan da beti, neurri haundiagoan edo txikiagoan. Horren lekuko, hasierako belaunaldiek antolatutako jaialdia. Erronka Santa Marinarako dirua ateratzea zen eta orduko ekitaldian Ondarruko Argoitia anaiak abeslariak, Galdakaoko Andra Mari Dantza Taldeak, pandero joleek eta albokariak osatutako jai egitaraua plazaratu zen. Beste batean, euskara zabaltzeko antzerkia prestatu zen eta arrakasta lortu ere bai, ikusita Etxebarrin, Zeberion eta Errigoitin egindako saioak.

Garaian garaikoak kontutan izanik, beste hainbat jarduera egiten ziren: futbola, alfabetatze ikastaroak, Haroko “La batalla del vino” ikusteko irteera, Urkiolara igoera, Nork daki? joko kulturala, zine emanaldiak, kanpamen-



Mendi irteerena, aspalditik jorratzen den jarduera.

## **Larrabetzuko Andra Mari jaiak**

**Karlos**  
pinturak

PAPERA  
ETA  
PINTURA  
ORO HAR

☎ 94 455 80 59  
☎ 94 433 63 83  
☎ 94 671 10 15

Axileta, 10 (Asua errepidea)  
**48195 LARRABETZU (Bizkaia)**

**LARRABETZU AURRERA**  
**Euskal Herria AURRERA**

**Josu, Jose Migel, Txanbi, Monika**  
**Larrabetzun libre**

ANDRA MARI KALEA - TEL.: 94 455 84 64

**ANKAPAZU**

LARRABETZU LORON BEHEKOA (BIZKAIA)  
94 455 81 97



Fermin Muguruzak, beste hainbat musikari ospetsu legez, oso gustukoa du Hori Bai gaztetxea.

duak eta abar. Baina ekitaldiren bat besteen gainetik ipintzekotan bi aipatuko genituzke. Bata, ikastolen mugimenduari buruzko erakusketa. Bestea, diktadurapeko sistema politikoaren aldaketa atarian antolatutako talde politikoaren aurkezpenak.

Erakusketaren asmoa aldarrikapena zen. Hiru egunetan ikastolen inguruan hausnartu, material didaktikoa erakutsi eta eztabaidatu. Bizkaiko ikastola guztien ordezkariez aparte, Agustin Ibarrola, Juan

Mari Torrealdai, Jose Ramon Etxebarria, Oskorri eta Gabriel Aresti bildu ziren. Azken bi hauen kasuan, "Oskorria" ekitaldia estreinatuz eta Larrabetzuri buruzko bi orriko poesia idatziz.

Talde politikoen auzepenerako gonbi-teak tamainakoak ziren, xedea, herriko sentsibilitate politikoen ordezkariek gonbidatzea zen. Iñaki Aldekoa (ESB), Juan Jose Pujana (EAJ) eta Santi Brouard (KAS) izan ziren parte-hartzaileak.

## **"Kasik berrogei urte herria dinamizatzen eta uneko kezkarri irtenbidea bilatzen"**

### **Sorrera**

Kasik berrogei urte herria dinamizatzen eta uneko kezkarri irtenbidea bilatzen. Hau da, denboraren ikuspegitik mantendu den ezaugarri nagusia. Belaunaldiz belaunaldi eta garaia garai, Hori Bai elkarteak bizirik dirau, laino guztien azpitik eta sasi guztien gainetik.

Sorrerako belaunaldikoez diotenez, "gu gazteak izanik, gazteei zeozer eskaini nahi genien eta horretarako aukerak ziren eliza magalean elkarte sortu edo OFJ (Organización Frente de Juventudes) garaiko gobernupeko egituraren erroldatu. Gure nahia, 1963az geroztik bideratzen hasi ginen. Momentu horretan OAR (Organización Artístico Recreativa) izeneko erakundea zegoela eta Bilboko Apezpikutzara joan ginen nondik norakoak



Herriko gazteak aisia arloan eskaintza zabala izan dute.

ezagutzera. Larrabetzun Zipriano zegoen abade, eta gure kezka zuzenean adieraziz, bere oniritzia jaso eta Fidel abadea Angolatik etortzeari itxarotea aholkatu zigun.

Esan eta izan, Fidel etorri eta "Briñasenian" (gaur egungo Bar Cafe) batzarra egin gendun. Antza denez, Zipriano Fidelekin adostuta eukan eliza ondoko egoitza gure eskura emotea, elizaren kontrola neurri batean bermatuz. Lokala eskuratuta, estatutuak idatzi eta legalki 1965ean Hori Bai elkarte sortu gendun."

**Oharra:** Hori Baik hainbat ekitaldi antolatuko ditu uztailaren 28tik abuztuaren 3ra bitartean. Egitaraua agendan duzue.

Testua: Arrekikili euskara elkarte  
Argazkiak: Hori Bai

# Larrabetzuko Andra Mari jaiak

**BARATEGIA**  
**J. ELORRIAGA**  
Etxeko berezitasuna: bertoko okela  
Iturrikoetxe, 7  
Telefonoa: 94 455 89 41  
LARRABETZU

**GARRAIOLARIA**   
Miguel Angel Lokio  
Avenida 101, 11  
LARRABETZU  
Telefonoa: 94 455 80 20

**OLANDO S.L.**  
**ARROZTEGIA**

- Sukaldeko altzariak, neurri eginak
- Bainugelako altzariak, neurri eginak
- Horma-armairuak
- Mahaiak eta aulkiak
- Txokoetarako altzariak

Enbete Industrialea  
115 plazaforma, 34 nesba  
48980 Galdakao (Bizkaia) | Tel./Fax: 94 455 00 00

**HIRUKOTE**  
**ERREMENTERIA**

- Metalezko erakuntzak: atzak, indaileak, tarriko oinak, burdin hesiak, bulki korrituak, eskuak eta giradun atak
- Forja artistikoko altzariak, abeturukoak, mahak, melkiak, lamparak, apalategiak...
- Auzokideen eta industrien komunitateetako mantentze lanak
- Alzairu herdoilgaitz eta titaniozko lanak

Pablo Lezkano

# Jaietan ondo pasatzeko aukera ugari izango ditugu Larrabetzun

## Argazkiak: Etxahun Lekue

Andra Mari jaietarako egitaraua prest dauka Larrabetzuko Udalak. Hala ere, uriko jai batzordeak Aikor!ri azaldu dienez, ez du izan aukerarik jaien antolamenduan parte hartzeko aurten.

Dena dela, Andra Mari jaietan ondo pasatzeko ekitaldi ugari izango ditugu urian. Horrela, bada, abuztuaren 14an, eguenean, hasiera emango zaie jaiari. Txupinazo ondoren Txatunba Benbe perkusio taldearekin kalejira egongo da herritik.

Beste ekitaldien artean, euskal dantzak, txakolin eta gazta dastatzea eta herri kirolak izango dira barikuan eguerdiko 1etik aurrera. Gainera, Xala-Apestezia eta Agirre-Zezeaga bikoteek pilota partidua jokatuko dute frontoian.

Zapatua umeei zuzendutako eguna izango da. Horrela, goizean jokoak izango dituzte Kilimiska taldearen eskutik eta txotxongiloak zein Marsel magoaren emanaldia arratsaldean. Gaueko 11etan Urgabe musika taldearen abestiek gorputza mugiaraziko diete larrabetzuarrei ordu txikiak arte.

Abuztuaren 24an jai-giroari berriro ekingo zaio. Arratsaldean, paella eta briska txapelketak izango dira.

Bai, beti bezala, ondo pasatuko dugu aurten ere. Aikor!rek larrabetzuar guztiei jai zoriontzuk eta alaiak opa egiten dizkie. Gora Larrabetzuko Andra Mari jaiak!

## Egitaraua

### Abuztuak 14, eguena

Futbito finalak  
Txupinazo  
22:00etatik 24:00 etara Kalejira Txatunba Benbe perkusio taldearekin Erromeria Arantxa eta Pantxo taldearekin

### Abuztuak 15, barikua

11:00etan Kalejira txistulariekin  
11:30etan Meza  
13:00etan Euskal dantzak  
13:00etan Txakolin eta gazta dastatzea  
18:00etan Herri kirolak Zelai, Goenatxo aizkolariekin  
22:00etan Pilota partidua. Bigarren mailako festibala eta gero Xala Apestezia – Agirre Zezeaga bikoteek pilota partidua jokatuko dute frontoian  
23:00etan Berbena Amaiur taldearekin

### Abuztuak 16, zapatua

10:30etan Kalejira Detraka taldearekin  
11:00etan Umeentzako jokoak Kilimiska taldearen eskutik  
Garbi bus  
17:30etan "Euskal ipuinak" Antzezikizuna txotxongilo taldearekin  
19:00etan Marsel magoaren emanaldia  
23:00etan Erromeria Urgabe taldearekin

### Abuztuak 24, domeka (San Bartolome)

Meza  
Hamaiketako  
14:30etan Paella Txapelketa  
17:30etan Briska Txapelketa



## Larrabetzuko Andra Mari jaiak



# Larrabetzuko jaiak Gora Andra Mari!



**EROSLE** ONDO PASA  
JAIETAN


LARRABETZUKO EROSLE. Iurretza, 2-3, Larrabetzu. Tel: 94 455 84 33

**FOTERI TABERNA**



Andra Mari Kalea, 22  
Telefono: 455 80 78

48195 LARRABETZU-Bizkaia



**LARRABETZU**  
**MUSIKA ESKOLA**

*Matrikula zabalik  
ikastegi homologatua*

Errebale, 7 Behekoa  
Tf. 94.455.70.66

48195.-LARRABETZU  
Derion, Institutoan

- HASIERA MUSIKALA
- BIOLONTZELOA
- PIANOA
- HISKUNTZA MUDIKALA
- KONTRABAXUA
- KLARINETEA
- KITARRA
- KANTUA
- GEHIGARRIAK:
- SOINUA
- ABESBATZA
- ARMONIA
- TXILIBISTA
- TXISTU
- EGITURAK eta abar.
- BIOLINA
- TRIKITIXA

ikasturtearen hasiera: 2002ko irailaren 16an - 3 urtetik hasita - helduentzako klaseak

**LARRABETZUKO BATZOKIA**

**TABERNA - JATETXEA**



**BERRERSONAKA S.L.**

ESKETSUNEREN ENPREXINTZA 3  
48195 - LARRABETZU (BIZKAIJA)

**TELF. 94 455 71 88**



**ETORKI TABERNA**

*Eguneroko menua  
Asteburuetan menu bereziak*

Andra Mari Kalea, 1  
Telf.: 94 455 81 85


48195 LARRABETZU  
(Bizkaia)



**Kamisetak  
Poloak  
Kirol-jertseak  
Zapiak**

*Txorierriko serigrafia*

*arraindegia - pescaderia*



**Hnos. VILLEGAS**

Andra Mari, 20 behea  
Tfno.: 94 455 71 42

48195 LARRABETZU  
Bizkaia

# Gora Lezamako Andra Mari jaiak!

Lezamako Andra Mari jaiak gainean ditugu eta aurten ere Jai batzordeak herri-tar guztiei zuzendutako jai egitaraua osatu du. Udalak diruz lagundu du. Aikor! kalera atera orduko ekitaldi batzuk zehaztu barik egon arren, ia egitaraua osoa aurreratu diezazuekegu.

Argazkiak: Koldo Peñafiel

Jaiei barikuan, irailak 5, emango zaie hasiera. Zapatuan umeentzako jolasak egongo dira eta gauean Gatibu eta Zen musika taldeek joko dute. Haiez gainera, beste talde batek ere jotzea espero dute antolatzaileek.

Domekan Euskararen Eguna ospatuko da eta hainbat ekitaldi izango dituzte lezamarrek herrian. Urtero lez, meza ostean Ekidazu abesbatzak emanaldia eskainiko du eta indarrak berritzeko bazkaria izango da Zorritzetan euskara taldearen eskutik. Egun horretarako kale antzerkia eta dantzaldia ere antolatu dira. Gainera, pilota partiduak jokatu dira frontoian. Bertan jendetza handia bildu ohi da urtero, izan ere, pilota partiduak jaietako ekitaldirik garrantzitsuenen artean daude.

Beste alde batetik, txosna bi jarriko ditu jai batzordeak.

Ekitaldi hauekin guztiekin gozatzeko aukera ederra dago. Badakizue, Lezamako jaiak urtean behin baino ez dira eta aprobeztatu beharra dago!



## Lezamako Andra Mari jaiak

**ZORRIZKETAN**  
LEZAMAKO EUSKERA ELKARTEA

IRAILAREN 7an

Eguerdiko 13:00etan Abesbatzen kontzertua  
Eguerdiko 14:30etan Herri bazkaria

Parte har ezazu,  
Gora Lezamako jaiak!

BATAK BESTEAGAZ LEZAMARROK EUSKARAZ  
Tel: 94 455 60 76

**Magalarte Txakolina**

Javi: 94 452 14 31  
Iñaki: 94 455 65 08

1991tik Zuzendakoa Arribabaltarteko egoitza

Batasun Txakolina!  
Destilazioa de Ordega  
Birikako Txakolina

LEZAMA  
EREBOLINA  
35cl  
10,5% vol.

**LEJARRENE JATETXEA**

GARAIOITZA, 102 - TEL: 455 65 46  
LEZAMA (BIZKAIA)

OKINDECIA - BASTALEKUA

Aretxalde, 64  
Tel.: 94 455 50 36 48196 11 7AMA

# Lezamako jaiak

## Gora Andra Mari!



**C.D.H. LOS AMIGOS DEL CABALLO**

Olaxarre Baserria, 184  
Garaioltza auzoa  
Lezama (Bizkaia)

**Telf: 94 455 65 11**

### Gora Kurtzeko jaiak!

FMC Foret, S.A.

Zamudioko Fabrika  
San Martin auzoa, 130  
Zamudio (Bizkaia)  
Tel: (94) 452 00 86 - 55  
Fax: (94) 452 11 46




**Baserritarren Alkartea**  
**Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS  
48196 LEZAMA  
☎ 94 455 60 16  
e-mail: lezama@fcae.org  
Bazkideak: 144



AHOLKULARITZA


- FISKALA
- LABORALA
- KONTABILITATEKOA



Aretxalde, 6R  
Tfn. 455 65 38  
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

### TXAKOLINA

#### LUISABRE



11% Vol. 75 cl.

Garaioltza, 87  
Tel: 94 455 65 41  
670 87 37 36

**Biskako Txakolina.**  
Denominación de Origen

Victor Camba Garbichak bidai, prestata eta berritarau  
LEZAMA-SPAIN  
N.R.E. 4814068100 140



**GARAIOLTZA, S.A.**  
PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

## LEZAMA

ETXEBIZITZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

LEHEN MAILAKO ERAIKUNTZAK; LEHIATE HANDIAK;  
ORDAINTZEKO ERRAZTASUN HANDIAK

### TF.: 94 455 50 19

Garaioltza auzoa, 128 (behea)  
Lezama (Bizkaia)

### TORREKO TXAKOLINA



*COSECHEROS DESDE 1883*  
José Antonio Dañobeitia  
Pedro Maria Dañobeitia  
Bodega

CASERIO TORRE  
Barrio Aretxalde  
48196 LEZAMA  
Bizkaia

☎ 94 473 15 34  
☎ 94 878 05 20  
☎ 94 455 62 39

# Geugaz euskaraz... gero eta gorago


Ekainaren hamalagarren egun hau grisa esnatu da, beroa baina haizetsua. Errepidetik ohizko koloreak ikusten dira, asfaltoak zeruarena islatzen, han-hemenka berdeak, gorri banaka batzuk, eta noizbehinka, autoek kolore zetaka ezberdinez inguru kromatikoa aldatzen dute.

Semaforoek gorritik berdera aldatuz, agian kolorezko argazki-negatiboa izateko nahian, bidea libre uzten dute.

Bat-batean ezohizko koloredun paisaiaren aurrean aurkitzen naiz. Lezaman nago, Herriko Eskola horiz tindatu da. Hemen daude nagusiak zein umeak, elastiko horia jantzita, kamisetak globo magentaz "gero eta gorago" aldarrikatzen duen leloarekin bat eginez.

Eskolako patioa kolorez gainezka dago. Gaztelu puztuak, euren plastikozko pasabideetan abentura ahaztezinak bizitzeko. Ohe elastikoak, hodeiak ukitzen saiatzeko. Rokodromora igo eta tirolinaren bitartez mendi garaienetik abiadura bizian jaisteko. Arkuak eta geziak, Robin Hood garaiko arkeruak gabela sentitzeko. Helioz beteriko mila koloreko globo kaiolan, baina libre izateko nahian euren leloa aldarrikatzeko, "Euskara gero eta gorago".

***"Eskolako patioa kolorez gainezka dago. Gaztelu puztuak, euren plastikozko pasabideetan abentura ahaztezinak bizitzeko"***



Globo aerostatikoa ordubeta ibili zen gora eta behera umeak garraiatzen.



Mila koloretako globok Lezamako umeen mezuak airean zabaldu zituzten.

Umeen algarak, musika eta gurasoen etengabeko lana ikusita itzelezko jai giroan murgiltzen gara.

Baina hau ez da dena, patioaren beste aldean globo aerostatiko erraldoi bat haizea noiz baretuko zain dago. Oraindik lurrean etzandako oihala baino ez da, baina azkenean erregailua piztuko da eta suaren bolada bakoitzaz, haize berz tente jartzen joango da. Hau bai ikuskizuna, ume ilara gora begira urduri baina saskira sartzeko prest, inor baino altuago izatearen sentazioan sentitzeko irrikatan. Globo ordubeta inguru ibiliko da gora eta behera umeak garraiatzen eta nagusiren bat baino gehiago txangotxo bat egiteko gogoarekin aho bete hartz geldituko da.

Ez, ez pentsa bukatu denik. Laster datorren kurtsoan institutura joan behar duten umeek, Jesus Pastorek egindako zeramikazko hontza bana eta agurrik bero-

ena jasoko dute. Jakingo duzue, Txorierri honetan Lezamako Eskolak hontza hartu zuen ikurtzat eta Eskolan igarotako umeak ez ahazteko oroigarri hau jasotzen dute IGERen eskutik.

Geroxeago, egarria eta gosea asetzeko garaia ailegatuko da merezitako hamai-

***"Lezamako Eskolak hontza hartu zuen ikurtzat eta Eskolan igarotako umeak ez ahazteko oroigarri hau jasotzen dute institutura joan behar duten umeek"***



ketakoarekin: antxoak, txorizoa, gazta eta, nola ez, Lezamako ospe handiko txakolina. Nagusiok ere geure momentua eduki behar dugu jai honetan.

Heliodun globoen kaiola gero eta beteago dago, beraz, askatzeko momentua hurbiltzen da. Atzerakontua hasten da, hau ez da Houston, baina zirrara handi bat sentitzen da zenbaki bakoitzarekin batera. Momentu honetan teknikak ez du nahi gurekin bat egin eta bideokamerari batera agortzen zaio. Justu kontaketa amaitzen den une zehatz horretan eta airera libre puxika guztiak doazenean gure kamerak grabatzeari utzi dio.

Askoren buruan galdera bat bueltaka, nora joango ote da nik idatzitako mezua?

Eguerdi aldera, gaztelu puztuei agur esan beharko diegu, baina ez jai giroari, oraindik bazkari ederra dago eta arratsaldean antzerkia.

Bukatzeko, dena jaso eta garbitu, eta antolatzaileen baitan ondo egindako lanen sentsazioa.

Aurtengoa ez da Lezamako Gurasoen Elkarteak antolatzen duen lehenengoa. Hala eta guztiz ere, bereziki jai honek eus-



Kamiseta horiak jantzita, "gero eta gorago" leloarekin bat egin zuten Lezamako umeek.

kararen aldeko gurasoen konpromisoa adierazi nahi izan du. "GERO ETA GORAGO" leloarekin batera, aita eta amen lan emankor baten fruituak agerian ditugu, bai festa honetakoak eta bai aurreko guztiak ere. Baina egiari faltako genioke ez bagenu esango aurtengo jaiak leloarekin bat egin duela, Lezamako Eskola eta euskara gero eta gorago.

Ah! ahazten zitzaidan esatea, eguzkiak ere parte hartu zuela ekaineko zapatu honetan Lezamako Eskolari izpi goxoak eskainiz.

Testua: Paxi Serrano  
Argazkiak: Lezamako eskola

## Lezamako Andra Mari jaiak

**KIMA**  
Landarak  
LANDARE APAINGARRIA  
Gottolza 33 • Tel.: 94 455 50 00 • Fax: 94 455 61 77  
48196 LEZAMA (BIZKAIJA)

**S.A.T. LEGY**  
PAISAJE, JARDINERIA, O. PINTURAS  
LEZAMA  
Gottolza Auzoa, 35  
48196 LEZAMA - Bizkaija  
Tel.: 94 455 61 98  
Fax: 94 455 64 17

**LAPIKO/S.L.**  
FURNITURARIEN, BORDURAK eta BORDURAK  
**LK**  
Df. Caralotza, 47 • 48196 LEZAMA (Bizkaija)  
Tel.: 94 455 63 88 • Fax: 94 455 64 61 • Fax: 94 455 63 98

**MUEBLES Arteszale DECORACION Clásico y Rústico**  
Bardotza Urtearic 47 • Tel.: Fax: 944 570 052  
48460 GALDARAO  
Gomendioz 49 B • Tel.: Fax: 904 544 141  
48196 LEZAMA • e-mail: arteszale@redim.com

**AVRTENETXE S.A.**  
MAKINARIAREN SALMENTA ETA KONPOSAKETA  
NEKAZARITZA - LOREZAINITZA  
**ERAKUSKETA ETA TAILERRA**  
Aretxalde, 105 • Autonomía, 57  
Tel.: 94 455 62 66 • Tel.: 94 427 29 18  
Fax: 94 455 65 66 • Fax: 94 427 29 18  
48090 LEZAMA (Bizkaija) • 48012 BILBAO

# Frontoi zaletasuna berpiztu da herrian



Testua: Itxaso Marina / Argazkia: Zamudioko Pilota eskola

Duela hiru urte Pilota Eskola sortu zen Zamudion. Kirol hau herrian berreskuratu nahian, Kirol Elkartekoak eskolako guraso taldekoekin harremanetan jarri ziren. Lehenengok beharrezko azpigitura jarri eta gurasoek umeak hartzeko ardura hartu zuten. Beraz, Pilota Eskola gaztea daukagu Zamudiokoa. Gaur egun, bost kidek osatzen dute Pilotako Zuzendaritza eta guk haietariko birengana, Sabino Olabarrieta eta Iñaki Astorkizarengana hain zuzen ere, jo dugu Eskolaren funtzionamendua azal diezaguten.

HEZKUNTZA ESKAINTZA

HEZIKETA ZIKLOAK

<p><b>FABRIKAZIO MEKANIKOA</b> - MEKANIZAZIOA Maila ertaina - 2.000 ordu- - PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA Goi maila - 2.000 ordu- - MEKANIZAZIO BIDEZKO EKOIZPENA Goi maila - 2.000 ordu-</p> <p><b>KIMIKA</b> - INGURUMEN-KIMIKA Goi maila - 1.400 ordu-</p>	<p><b>ELEKTRIZITATEA ETA ELKTRONIKA</b> - ERREGULAZIO ETA KONTROK SISTEMA AUTOMATIKOAK Goi maila - 2.000 ordu- - INFORMATIKAKO TELEKOMUNIKAZIO-SISTEMAK Goi maila - 2.000 ordu-</p> <p><b>MERKATARITZA ETA MARKETINA</b> - KUDEAKETA KOMERTZIALA ETA MARKETINA Goi maila - 1.400 ordu-</p>
--	--

BATXILERGOAK

BATXILERGO TEKNOLOGIKOA

**POLITEKNIKA IKASTEGIA**  
**TXORIERRI**  
S. COOP.  
LANDIDE-HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRALA

Unitzaga Ibiloba Kalea, 1 (Derioko Apatzaga Reglaren ondoan) 48100 Derio - Bizkoka Tthoz. 94 403 40 60 - Faxa 94 403 40 61  
E-mail: info@txorierri.net - http://www.txorierri.net

### Zelan dago antolatuta pilota eskola?

Umetxo, ume, gaztetxo eta kadete kategoriak dauzkagu eta 32 haur daude guztira. Halaber, bi gaztek monitore lanean dihardute. Entrenamenduak irailean hasi eta ekainean amaitzen dira. Horrela, bada, astean bitan bi orduko entrenamenduak dute umeek. Gehienek hemen izaten dute pilotarekin lehendabiziko harremana eta hasieratik irakatsi behar zaie: nola bote egin pilota, nola egin sakea... Gero, denboraren poderioz, teknika hobetuz doa.

### Eta zein da zuen helburua?

Gazteek pilotan aritzen ikastea zein frontoian primeran pasatzea dira gure helburu nagusiak. Horretara, bada, herriko gazte guztiek pilota eskolaren atea zabalik dutela adierazi nahi dugu. Hasieran neska batzuk izan genituen taldean, baina utzi egin zioten entrenatzeari. Neskak ere animatu nahi ditugu frontoian aritzen.

## “Herriko gazte guztiek pilota eskolaren atea zabalik dute”

### Zein motatako ekintzak prestatzen dituzue urtean zehar?

Bizkaiko pilota eskolen arteko txapelketa antolatzen du Foru Aldundiak urrian eta guk parte hartzen dugu. Hori amaitu bezain laster, martxoan hain zuzen ere, Txorierrikoa hasten da eta horretan ere aritzen gara. Urte bakoitzean pilota eskola batek antolatzen du eta aurten guk izan dugu ardura hori.

Beste alde batetik, uztailean ere entrenamenduekin jarraitu dugu. Udako ekintzak antolatzen dutenekin akordio batera ailegatu gara eta irteerarik ez duten egunetan frontoian aritzeko aukera eman zaie herriko ume guztiei.

## “Txorierriko pilota eskolen arteko txapelketa giro ezin hobea eta partehartze handia izan dugu aurten”

### Txorierriko pilota eskolen arteko finalak ekainaren 22an jokatu ziren; egin balorazioaren bat.

Balorazioa guztiz baikorra da, giro ezin hobea eta partehartze handia izan dugu eta. Gainera, partiduak astebururo jokatzen dituztenez Bizkaiko txapelketa baino askoz gehiago aurreratzen dute. Era berean, umeek elkar ezagutzen dute eta gehiago konprometitzen dira.

### Pilotan etorkizun oparoa izan dezakeen baten bat badago?

Eskola duela gutxi zabaldu bazen ere, oso maila ona daukate orokorrean eta baten batek lor lezake pelotari ona izatea. Aurten, adibidez, eskolako hiru jo eta ke ibili dira Txorierriko finaletan.

### Zeintzuk dira zuen diru-iturriak?

Hasieran monitore bakarra geneukan eta Klubak ordaintzen zion. Iaz beste bat kontratatu behar izan genuen eta Udaletik ere dirulaguntza jaso genuen. Era berean, Zumeltzu trokeleriak diru kopuru bat ematen digu arropa erosteko.

## “Espero dezagun datorren kurtsorako lokala izatea”

### Instalaziorik ez duzue, ezta?

Ez. Egoera negargarrian gaude: bilerak tabernan egin behar izateaz gain, bakoitzak eskolako materiala etxera eraman behar du eta. Ezin dugu horrela jarraitu... Horrexegatik jo dugu Udalera eta espero dezagun datorren kurtsorako lokala izatea frontoiaren ondoan.

### Nola ikusten duzue eskolaren eboluzioa hiru urte hauetan?

Antolamendua asko hobetu da, gogor eta serio lan egin dugulako. Umeei dago-kienez, urtero kopuru bera mantentzen dela esan dezakegu. Hala ere, bi urte barru arazoak etor litezke, aspaldi honetan ume gutxi jaiotzen dira eta.

### Dena dela kirol gogorra da pilota. Gogogabetzen dira umeak?

Batzuk bai. Alde batetik, oso mingarria da pilota eskuz jotzea eta, esku-babesa jarri arren, askotan lesioak izaten dituzte. Beste aldetik, banako kirola da eta oso ondo prestatuta egon ezean aurkariak gorriak ikustarazi ahal dizkizu... Gure ustez, umeak beti irabazten edota galtzen ohi-tzea kaltegarria da. Hori dela eta, bikoteak aukeratzeko orduan bi pelotarien arteko oreka topatzen saiatzen gara.

Nolanahi ere, umeak pilota eskolara etortzen dira frontoian norgehiagoka aritzea gustuko baitute... Kirola polita eta noblea delako, azken batean.

### Zuen ustez, pilotazaletasunik badago Zamudion?

Jende gutxi frontoian aritzen bada ere, herrian kirol hau gero eta gogo handiagoz bizi dela uste dugu. Horretan komunikabideek oso eragin handia dute. Gainera, umeak jolasten hasteak ere gurasoen zale-tasuna sortu du.

CLINICA DENTAL  
**ZAINDUZ**  
NORRIK ALINKA

- Odontologia orokorra
- Ortodontia (umaak eta helduak)
- Periodontia
- Kuraguzko Hartzak
- Plasma berria
- Hartzak indartzea (zurketa, pliercing...)
- Hartzak jarraia eta berria

**Jesus Enrique Lopez Hidaigo**  
Odontologo

Txorierriko 7. Ibilbidea (Aurreko Pabilloa)  
Telefonoa: 94 454 50 51 - e-mail: claindud@zainduz.net - 48160 DERIO (Bizkaia)

**Janix**  
OHINETAKOAK - OLAGARRIEN

Gernikako Arbola Etorbidea, 2  
(aurreko Guiko Kaleatik)  
Telefonoa: 94 454 20 13  
48160 DERIO (Bizkaia)

**Inmobiliaria ETORKI**

Hortiko Plaza, 1. Ibilbidea  
Tel. 94 454 50 53  
Móvil: 607 32 36 53

48160 DERIO

**UMEENTZAKO MODA**

**Tximeleta**

Gernikako Arbola, 8  
Telefonoa: 94 454 14 15  
Fax: 94 454 36 26

48160 DERIO  
Bizkaia

CENTRO MASAJE  
**LASAI**

Teknikak:

- Ultrasonido (filiofototerapia)
- Masajezko
- Osteopatia
- Masaje
- Tratamenduak

Clinica especializada en:

- Cines de seguridad (Accidentes)
- Limpieza de la zona
- Clases deportivas
- Fisioterapia

C/ Txorierriko 4 (2.º planta)  
48160 DERIO (Bizkaia)  
Tel: 94 454 3076  
Móvil: 600 74 24 00  
Fax: 94 454 3076

Fax: 94 454 3076

**DERIO FRUTADENDA**

Sollubici, 8  
Telefonoa: 605 77 12 62  
DERIO

# Luis Angel Artetxe: "Laster ez dogu berderik ikusiko baserrian"

Bedarretan dabilzan baserriar gitxi doguz Txorierrin gaur egun. Holako lanetarako sasoia amaitzear dago eta guk honeitariko batengana, Lezamako Luis Angel Artetxerengana hain zuzen be, jo dogu. Monterok -izengoiti honegaz ezagutzen jako herrian- bedarrari buruzko hainbat kontu azaldu deusku.

## Noiz hasten da bedar-sasoia?

Maiatzaren amaieran edota bagilaren lehenengo egunetan hasten gara bedarrak egiten. Ebagi eta bost egun eguzkitan izan behar dogu, sikatu arte. Bestela, berde dagoanean fardoak egiten badira bedarra usteldu egiten da. Normalean bedar-ebate bi egiten dodaz nik; lehenengoan bolak eta bigarrenean fardoak egiten dodaz. Dana dala, lehenengo bedarra azkoz hobea da, bitamina gehiago dauka-ta.

## Eta noiz arte zabilz beharrotan?

Egia esan, amaitzekotan gara, ia lan egiteko bedar-sailik ez dagoalako. Aspaldian, eta puztu barik, 3 edota 4 mila fardo egiten nituan egunero. Gaur egun, ostera, 500 edo 50, edo 20...

## Orduan, ganadu kopuruak be behera egin dau, ezta?

Bai, guk berrogeita hamarren bat buru izango doguz baserrian. Dirulaguntzak dirala-ta okelarako ganadua izatea da arruntena. Hala ere, laborantza-erreformarekin dirulaguntza horreek desagertuko dirala esaten dabe... Hori holan gertatu ezker, baserriarrok hondatuta gagoz.

## Etorbizunari begira, ardiak izatea konponbidea izan leiteke?

Ez. Baina ardiek 4000 pezetako dirulaguntza daukie urtero, eta horrexegatik batzuk ardiak jarri dabez. Beste alde batek, behi-okela ez da saltzen lehen saltzen lez. Orain hamar urte 400 pezetatan saltzen bazan, orain 370 edota 270 peze-

tatan emoten gabilz. Esne-behia, bere aldetik, errentagarriagoa da, baina konstantea izateaz ganera behi asko izan behar dira, ez lau edo bost lehen bezala.

## Labela lortzea gatxa da?

Gu label barruan gagoz. Behi blondak labelean sartzen dira arazo barik, baina ez dabez pintak onartzen koiperik ez daukielako. Ganera, ezin jake edozein pentsu emon gizentzeko. Behiak hil orduko, baita hamabost egun lehenago ere, Labeleko bat etorri eta txisa analizatzen dau. Labela eukita, prezio hobean saltzen bada be, egoera ez da ona. Horretara, bada, harategiek ez dabe salmenta handirik egiten eta, ondorioz, ez deuskue genero asko erosten. Esnari jagokonez, antzekoa esan geinke. Guk gaztai-fabrika batzuei saltzen deutsegu, baina gaztai gitxi jaten ei da aspaldi honetan...

## Goazen harira... Bedarra fardoetan baino, boletan gehiago egiten da?

Bai. Gaur egun ganadu arean daukanak ez dauka beste erremediorik. Fardoak egiteko jende askok egon behar dau lanean eta bolak pertsona bakar batek egin leikez. Ganera, ganaduak bedar sikua edota freskoa baino hobeto jaten dau boletan dagoana hartziduregaitik.

## Dana dala, soloko beharrak asko aldatu ei dira...

Lehen batzuen artean egin behar genduan: bedarra ebagi, buelta emon, arrastelua pasatu... Orain nik bakarrik egiten



Beharrea harrapatu dogu Montero.

ditut segadora-hiladora izeneko makinak lagunduta. Behiek egunero jaten dabena ordu laurden baten egiten dot.

## Zein egoeratan egongo zarie baserriarrek hemendik hamar urtera?

Galduta, hainbeste enpresa eta txaletekin lan egiteko lurrik ez dogu izango eta. Laster ez dogu berderik ikusiko baserrian.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

**HORTZ KLINIKA**  
**GANDIAGA**  
CLINICA DENTAL

Flixabete Gandiaga Osoro  
ODONTOLOGUA

Odontologia medikua  
Odontozia  
Implanteak

Tambraganen, 1 - lekua 1<sup>o</sup> ed. (sareta I. dardariori Agirre plazatik)  
48170 ZAMUDIO  
Tfona. 94 452 62 30 - 31  
E-mail: klinicagandiaga@nolocal.net



**TALLERES JUAN ANDRES**  
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA  
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragoiti Ind., 8 - 216 Pab.  
Tf.: 94 452 67 05 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**CARROCERIAS**  
**TXORIERRI**



José Antonio Sanz

**TXAPA ETA LABE-PINTURA**

Torrearragoiti poligonoa  
Vial sur C-15, Nave BB-1  
Telefonoa: 94 452 78 03

48160 Zamudio  
(Bizkaia)

# Interneteko bilatzaileak

Testua: Alberto Legarreta

Internet informazio sare bat da, munduan sakabanaturik dago, danetarik aurkitu gein-ke. Baina askotan galduta gagoz. Bertan sartu eta ez dakigu zer egin edo zelan aurkitu informazio interesgarri hori. Jende askok bilatzaileen zehar nabigatzen dau. Interneteko atariak be erabili leitezke, baina informazioa mugatu egiten dau, izan be, ezinezkoa da Interneten dagoan hainbeste informazioa holango atari baten ipintea eta atari bakoitzak bere bilatzailea aukiten dau.

Beraz, hemen ikusiko dogu zer diren eta zelan erabili leitezkezan bilatzaileak.

## Zer dira bilatzaileak?

Bilatzailea tresna bat da Interneten informazioa bilatzen itxiten deuskuna. Nahikoa da hitz batzuk erabiltea, zer gura dogun deskribatzeko. Atzetik dago informazioa daukan datu-basea. Indexazio, konpresio eta data antolaketa sistemak be aukiten ditu. Harek guztiak ekarten dau hitz bilaketak arin-arin egitea.

## Bilatzaile motak

Hauk dira garrantzitsuenak:

- Gako-hitzak erabiliz.
- Kategoria bilatzaileak. Gai bat hautatu eta gai horri buruzko orriak bilatzen ditu.
- Metabilatzaileak. Bilaketa hainbat bilatzailetan egiten dau.
- Programa metabilatzaileak. Metabilatzaileak antzekoak dira, baina aukerabide gehiago daukez. Zeure ordenagailuan instalatzeko programa bat da.
- Bilatzaile berezia. Gai zehatz baten bilaketa egiten dau.

## Zelan erabili?

Bilatzaile on bat aukeratu. Haren ezau-garriak dira garrantzitsuenak:

- Arintasuna
- Emaizaren kalitatea.
- Zenbat orritan egiten dauen bilaketa.
- Orrien data. Oso aldakorrek izaten dira Interneten.
- Erabilteko erreztasuna.
- Bilaketa aurreratuaren aukera.
- Aukera bereziak. Hizkuntza, filtroak ...

## Bilaketak.

- Gako-hitzak ondo aukeratzea.
- Hitz zehatzak erabiltzea.
- Bilaketak murriztea.
- Hitz soilak erabiltea.
- Aurreratuak erabiltzea, aukera badozu.
- Kategoria bilatzaileak lagungarriak izan leitezke.

## Zer ez dau bilatzaile batek egin behar.

- Horri ezabatuak erakustea.
- Emaizak errepikatzea.
- Astuna izatea. Arin atera behar ditu emaitzak.



## Aramu bakartien sarean IV

Badakigu udako egun luze eta eguzkitsuetan ez dugula gogo handirik izaten ordenagailu-gaz berbetan luzaroan aritzeko. Badakigu udako egun luze eta eguzkitsuetan hondartza zein igerilekuetan ematen dugula denbora, inoren edertasuna eta norberarena goratuz eta inoren moztasuna eta egundo ere ez norberarena arbuaituz. Jaien biharamunek ere ez dute pantaila karratuegi baten aurrean orduak ematera laguntzen, ostea kentzeko erremediorik onena kalera irten eta lagun-kin beste parranda bat egitea ei da. Horrexegatik gaurkoan [www.ueu.org](http://www.ueu.org) aukeratu dugu. Aipamen hau idazten ari garela Udako Euskal Unibertsitateak urtero antolatzen dituen ikastaroetan ari dira, Iruñean, Larraona ikastetxean. Uztaile honen 7tik 11ra bitartean Miarrizteko Lizeoan izan ziren. Benetako Euskal Unibertsitatea lortzeko helburuarekin jaio zen UEU eta udako ikastarok izan dira orain arte haren eskaintza nagusia. Aitzitik, goian aipatu helbide elektronikora jotzen baduzue, udako eskaintza gain, urte osoan zehar hainbat ikasondoko eta ikastaro ere eskaintzen dituztela ikusiko duzue, baita master bat ere. Sail edo gaikako argitalpenak beste inon aurki ezin daitezkeenak dira, hainbat adituk beren beregi idatziak. Geure Euskal Unibertsitatea sortuko badugu, eguzkitan egoteaz aparte bada zereginik

Testua: Bihotz bakartien klubeko kidea

## Bilatzaileak

**Google** <http://www.google.com>  
**Altavista** <http://www.altavista.com>  
**Ozú** <http://www.ozu.com>  
**Yahoo** <http://www.yahoo.com>

## Euskeraz

**Kaixo** <http://www.kaixo.com>  
**Aurki** <http://www.aurki.com>  
**Jalgi.com** <http://www.jalgi.com>

Interneten dagoen garrantzitsuenak Google da, gehienentzat da onena.

## Zelan ipini Google euskeraz?

Internet explorer-en: herramientas -> opciones de internet -> general ->idiomas -> agregar -> Vasco [eu]  
 Eta gero: "Aceptar", "Subir".  
 Azkenik: "Aceptar".

**Gestión Zamudio** Aholkularitza Eskola  
 Jon Vázquez García  
 AHOLKULARITZA ENKOMUNIKAZIOA

Garbidi 7, Zelai  
 48170 ZAMUDIO (P.V.)  
 Tel.: 945 921 111 Fax: 945 921 134  
 E-mail: jvazquez@gesti-zamudio.com

**SUINOR COMPUTER, S.L.**  
 POL. IND. TORRELARRAGOITI, POL. BILBOQUE 1, NAVE 3 - ZAMUDIO

**www.mynor.com**

**¡¡¡ 10 AÑOS CONTIGO !!!**

BILBAO INFORMÁTICA - of. Automía, 54 tel / fax: 94 421 6254  
 BARAKALDO INFORMÁTICA - Avd. Miranda, 3 tel/fax: 94 4781643  
 LEIOA INFORMÁTICA - Avd. Iparragirre, 54 - local - (galerías batzuk)  
 tel. 94 482 45 38

**Vértigo**  
 GONZALO ERRETXEPAKOR  
 EUSKAL UNIBERTSITATEA

IKUSKIZUNEN ANTOLAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA

MANUELA TRUJILLERUEN ETX. S.L.  
 BILBAO ZARAGOZARRETA (BILBOALAN)  
 Tel. 94 421 62 110 Fax: 94 421 62 110

# Artea zaharberritzen

Arte kontuetan Derio ez da ez Italia ezta Grezia ere. Egia esanda, alde zaharrik ere ez dauka. Hori guztia begi bistakoa den arren, Deriok ere badauka altxor txiki bat: San Kristobal eliza.

Derioko eraikinik esanguratsuenen —eta bakarra— izanda ere, egoera txarrean eta erdi bertan behera utzita egon da urte luzez. Horrexegatik, hain zuzen ere, eraikin hau zaharberritzeari ekin zitzaion duela urte gutxi eta, lehenengo fasean, teilatua konpondu zitzaion. Bigarren fasea 2002ko azaroan onartutako proiektuarekin hasi zen eta konpontze lanak, aurtengo apirillean hasitakoak, abendurako amaituta egotea espero da, Roberto Unzuetak Aikor!-i azaldu dionez. Datorren urtean hirugarren faseari ekingo zaio kanpoko aldea txukuntzeko asmoz. Honela X. mendeko eraikin honek behar bezalako tratamendua edukiko du aurrerantzean.

Eraikin honetan gordetzen da, beraz, Derioko eta Euskal Herriko historiaren zati nagusi bat. Izan ere, Derio Uribe merindadeko elizatea dugu, hau da, San Kristobal eliza honen kanpoaldean zegoen harrizko mahai baten inguruan auzokideak elkartu egiten ziren, gutxienez X. mendetik aurrera erabakiak hartzeko eta euren zintzoa aukeratzeko. Zintzo honek merindadera (Mungiar) eramango zituen erabakiak eta handik Batzar Nagusietara, non 1688tik aurrera 32. eserlekua eta botoa zeukan.

Honela osatzen zen euskal demokrazia eta horren lekukoa dugu eliza hau. Konpondu ostean antzinako harrizko mahaia, kanpoan egongo da berriro ere. artea eta kultura uzta-tuz. Gure arbasoen alderdi onak harri isil hauetan dauzkagu gordetik eta guk geuk ere badugu bertan zer ikasirik.



## San Kristobal eliza datutan

- X. mendean eraikia.
- 1745ean berreraikia eta handitua, barroko tankeran.
- Harriarabotezko (manposteria) eraikina.
- Ertzetan harlandu handiak.
- Sarrera ateburuduna (dintelduna).
- Dorre errektangeluarra.
- Elizataria habeetan finkatua.
- Barruan, Ama Birjina eta Jesusen irudi gotikoak daude.
- Elizaren aurrealdean San Kristobal erdi-erdian, eta gorago Santiago.
- Antzina zoruari hilobiak zeuden.
- Edukiera: 90 pertsona jesarrita, 200 zutik.
- Erabilera: ezkontzak, kontzertuak, arte erakusketak...

## Oraingo lanak

- Proiektuaren onarpena: 2002ko azaroa.
- Lanen hasiera: 2003ko apirila
- Amaiera epea: 2003ko abendua.
- Aurrekontua: 13 0.000 euro.
- Finantziazioa: %50 Udalak, beste %50 herri-tarren artean lortzeko asmoa.
- Hormak pikatu, zarpeatu eta margotu.
- Arkuetako harri landua atera.
- Zoruko egurra kendu eta berria jarri aurrealdean, eserlekuak doazen lekuan; atzealdean, berriz, harria.
- Barroko estiloko bi erretaulak konpondu eta garbitu, sitsa hilez eta jatorrizko pintura ateraz.
- Irudiak garbitu eta jatorrizko margoa atera.

**Sabin Askolizaga**  
Asketu Asuntza  
Aliaz  
609 47 57 46  
Tel. 94 4531807  
Fax 94 4531027  
Mingie, 6. 11ba  
48150 Sanfilo-Bizkaia

**PATXI** COOP. TX.  
Concesionario Zamudio  
**Mahou**  
**Carlsberg**  
Tel: 94 452 25 87  
470 87 77 14  
Ugaitzearen Industriak I  
48170 ZAMUDIO Bizkaia

LIBURUDENDA BIFERDENDA  
**ZAMUDIO**  
Gardoa Kalea, 5  
Telefono / Fax: 94 462 29 10 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

BITXITEGIA - ERLOJU-DENDA  
**Ruben**  
Lekendakari Laitasari Plaza, 5 - Tel.: 94 452 14 49  
Zamudio (Bizkaia)

**z**  
**luz zamudio**  
ARGI APARATUAK  
Makerratutako 1 (j. on) Telefonoa eta Fax: 94 452 11 60 - 48170 Zamudio (Bizkaia)

**OSKARBI**  
fotografoak  
BIZKAIA APEZUELA  
TALLERIKALEA 3  
48170 ZAMUDIO BIZKAIA  
TEL. 944 520 014 / 605 705 087  
E-mail: apeze@euskalnet.net



# Tindufeko kanpamentuetara bidaiia

Marokoren inbasioa dela eta, euren herritik kanpo, basamortuaren erdian baldintza ezin lazarriagoetan bizi den herri hau bisitatzeko eta bertatik bertara ezagutzeko eta dituzten beharrianak ikusteko aukera izan nuen, udal batzuen beste ordezkari batzuekin batera joan den mar-toxoan egindako bidaiian.

Saharako herritarrak bizi diren kanpamentu hauek Tindufeko (Aljerian) basamortuan daude. Bertan 200.000 pertsona

inguru bizi da. Kanpamentuak 4 wilaya-tan (herrialdeak) banatuak daude: Auserd, Aaiun, Smara eta Dhjla. Wilaya bakoitzak 6-7 daira (herri) ditu, eta daira bakoitzak 4 auzo. Guzti hauek Saharako bertako jatorrizko herrien izenak daramatzate.

Dauzkaten bizi baldintzak oso gogorak dira. Basamortuko klima daukate. Udan, egunez 50º-tik gorako tenperaturak jasan behar dituzte eta etxebizitzak adobezko txabolatxoak edo haima-k (dendak) dira.


Irakaskuntzari izugarrizko garrantzia ematen diote eta nahiz eta bizi duten egoeran hau oso zaila izan, ume guztiak eskolatuta egotea lortu dute.

Nazioarteko laguntzari esker bizi dira. Ezin izango lukete iraun, kanpoko laguntzari esker ez balitz, laguntza ekonomikoa eta politikoa, Saharako Nazio Batuek onartu zuen eta noiz aplikatuko zain dauden erreferendum bidezkoa eta gardena betetzen den bitartean.

Aipatu beharrekoa da bertako antolakuntzan emakumeek betetzen duten lana. Beraien esku dago kanpamentuen antolakuntza, eta administrazio lanik gehienak egiteaz arduratzen dira.

Kanpamentuetan pasatutako egunak bertako familien etxeetan banaturik eman genituen eta zerbait bereziki aipatu behar badut, herri honen abegikortasuna da.

Aukerarik duten guztiei gomendatuko nieke herri hau ezagutzea, Marokok inbadituta daukan euren herrira bueltatzeko ilusioarekin bizi den Saharar herria.



Kanpamentuetako Saharako ume guztiak daude eskolatuta.

Testua eta argazkia: Lourdes Etxebarria

## “LAIA HOTEL MUSEOA”



L A I A	Parke teknologikoa
	Eraikina 806 - Derio (Bizkaia)
	Tel. 94 431 76 80
	Fax 94 431 76 81
	laia@saviat.net www.saviat.net

Txorierrin kokatuta dago, Derioko herrian. Energia berriztagarrien sistemei esker, berau da hotel ekologiko bakarra.

Hidromasajeaz hornitutako 38 gela ditu. Gorriti euskal eskultoreak beren-beregi egín du ohe bakoitza.

Euskal Herriko historiaurretik gaur egunera arteko elikatze-moduak erakusten dituen museo bat jarri da jantokian.

Euskal gastronomia dastatu ahal izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzaririk berriztaileena.

Fitness eta spa zentroak relax zirkuitu hau eskaintzen dizu atsedean hartzeko eta erlaxatzeko: sauna, vaporiuma, jacuzzia, dutxa inguratzailea eta automasajeko koltxonetak.

**Aurreko galderaren erantzuna:** 600 ikaslek hartu zuten parte Txorierriko eskolen arteko udaberriko jokoetan.

**Irabazlea:** Juan Alberto Apraiz.



## LEHIAKETA

Hilero-hilero, lehiaketa bat egingo dugu aldizkarian. Saria haxe izango da, lagun birentzat: asteburu batean gau bat pasatzea Laia Hotel Museoan. Sariaren barruan daude gela bikoitza, buffet-gosaria eta Spa zirkuitua (sauna, jacuzzia, etab.)

Zozketan parte hartzeko, galdera hau erantzun behar duzue:

**Noren kontra jokatuko du Athleticek aurre-denboraldiko lehen partida?**

Bidali erantzunak (zuen telefonoarekin), irailaren 15a baino lehenago, postaz (Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama), edo aikortxori@yahoo.es helbide elektronikora idatzita.

**(Saria Laiaren eskaintza duzue).**

# Sukaldaritza

## Etxeko sukaldaritza

### Baina-patatak

#### Osagaiak (4 lagunentzat)

Kilo bat baina  
Patata handi bat  
Kinpula erdi bat  
Oliba orioa  
Gatza

#### Prestatzeko era

Ipini ura presinozko lapikoan eta, irakiten dagoenean, bota bainak txikituta, gatza, kinpula erdia txiki-txiki eginda eta orio txorrostada bat. 10 minutuan irakiten euki behar da. Patatea aparte egosi gatz apur bategaz. Kendu ondo ura bainari eta patateari, egin erre-frito bat berakatzakaz eta bota ganetik.



Mari Tere Onaindia

### Zainzuriak txangurroz beteta

#### Osagaiak

Zainzuriak  
Txangurro bat  
Buia bat  
Kipula  
Arrain-zopa  
Irina  
Arrautzak  
Oliba olioia  
Saltsa holandarra

#### Prestatzeko era

Zartagin batean kipula gorrituko dugu. Gero, txangurro zein buiaren okela eta arrain-zopa botako ditugu. Hozten utziko dugu.

Nahasketa horretaz beteko ditugu zainzuriak eta arrautza-irinetan pasatu ondoren frijituko ditugu. Saltsa holandarrik lagunduta aterako ditugu.

#### Nola prestatu saltsa holandarra

##### Osagaiak

20 gr. gurina  
Hiru arrautzen gorringoak  
Limoierdiaren zukua  
Gatza

#### Prestatzeko era

Kazola batean gurina urtuko dugu. Sutan jarriko dugu beste kazola bat eta

gorringoak harrotuko ditugu. Harrotuz gero, gurina apurka-apurka, eta irabiatzeri utzi gabe, botako dugu. Azkenean, limoiaren zukua gehitu eta gatza botako dugu.



Aramendi jatetxea Zamudion.

**CAFETERIA**  
**iAZi**

Eguneko menua eta  
Menu berezia

JATA KALEA, 2 - Telefonoa 94 454 29 56 - DERIO (Bizkaia)

Bar - Restaurante

*Balgerri*

1. gunean menuak  
Itelara bereziak  
Preparazio lokalak

Po. Itz. Industrial Torrelentegiko, Finca 5 - Nave 3 - 48170 (AMULE) -  
Tel. 544 523 853 • Fax 544 523 376

CAFE - BAR BESTORRENE

Bestorrene kalea, 8  
48160 Derio  
Tfno.: 94 454 40 63



# GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

## LIBURUAK

**"Emakumeak XX.mendeko historian"**

**"Yehuda"**

Josemari Vález de Mendizábal

**"Pulp"**

Charles Bukowski

**"Jostorratza eta haria"**

Yolanda Arrieta

**"Kotti"**

Joxantonio Ormazabal

**"Tamarindoaren zainak"**

Sindo Pacheco

**"Kokodriloa ohe azpian"**

Mariasun Landa

**"Mugaz haraindiko itsasoak"**

Garbiñe Salaberria

## DISKOAK

**"A irmandade das estrelas"**

Carlos Núñez

**"The very best of MTV Unplugged"**

**"Impressions D' Afrique"**

**"Mujeres: voces de la tierra"**

**"Soro"**

Salif Keita

**"Come away with me"**

Norah Jones

# DENBORA PASA

## Benetan ezagutzen duzu Txorierrri?

Txoko honetan Txorierriri buruzko zure ezagutza jarri gura dugu proban. Hasiera erraza ipini dizugu. Ea, ba, gai zaren agertzen den eliza bakoitza dagokion herriari elkartzeko. Baina egizu emaitzei begiratu barik, jakina!



A



B



C



E



D



F



G

LARRABETZU 1

ZAMUDIO 2

LEZAMA 3


SONDIKA 4

ERANDIO 5

LOIU 6

DERIO 7

Benetan ezagutzen duzu Txorierrri? Emaitzak: A3, B4, C1, D5, E2, F7, G6



# Agenda

## Jaiak

### Loiu

Larrondoko Elotxerri auzoan.  
Abuztuaren 30etik irailaren 1a arte

### Sondika

Santa Kurtze. Irailak 13 eta 14  
San Roke. Abuztuaren

### Derio

San Esteban. Abuztuak 2 eta 3

### Larrabetzu

Gazte eguna 03. Uztailaren 28tik  
abuztuaren 2ra arte. Hori baik antolatuta

- Uztailak 28

20:00etan Geroa elkarteagaz  
Larrabetzuko barianteari buruzko mahai-  
ingurua / kafe-tertulia, plazan.

- Uztailak 29

20:00etan Gaztetxeen arteko mahai-  
ingurua, gaztetxean.

22:00etan BBKren (Bihotz Bakartien  
Kluba) poesia emanaldia, gaztetxean

- Uztailak 30

20:00etan Hitzaldia: Txina. Gaztetxean.

- Uztailak 31

12:00etan Txistulariakaz kalejira,  
Larrabetzuko Kartoizko Bandagaz  
poteoa.

14:30ean Herri bazkaria, plazan.

18:00etan Antzerkia, Ohiulari Clown  
taldearen eskutik. Plazan.

21:30ean Erromeria, Irats taldearen  
eskutik.

-Abuztuak 1

17:00etan Esku pilota partidak, pilota-  
lekuan.

20:00etan Gazte eguna bideo emanal-  
dia, gaztetxean.

-Abuztuak 2 (Gazte eguna)

18:00etan Gaztetxeen arteko  
Olinpiadak, plazan.

22:30ean Kalejira

24:00etan Kontzertua: Pin Pan Pun  
Band, Su ta Gar, Ttak

Andra Mari. Abuztuaren 14tik 16ra arte.

San Bartolome. Abuztuak 24.

### Derio-Zamudio

Santimami. Abuztuaren 15etik 17ra  
arte

### Zamudio

Sandoni. Irailak 2 eta 3

San Bartolome. Abuztuak 23, 24.

### Lezama

Andra Mari. Irailaren 5etik 7ra arte

Santa Kurtze. Irailaren 13tik 16ra arte

## Ikastaroak

Ez ahaztu 2003-2004. urteko ikastaro-  
etan izena emateko epea irailaren izango  
dela udalerrri guztietan. Aikor! kalera atera  
orduko, Lezaman egongo diren ikastaroak  
baino ez ditugu eskuratu. Ikastaroak  
hurrengoak izango dira:

Eskulan ikastaroa, altzariak berriztatze-  
ko ikastaroa, zur-lanketa, bolillo eta path-  
work, aerobika, nagusientzako gimnasia,  
gimnasia, joga, areto-dantza, sukaldaritza,  
argazkilaritza.

Izena emateko epea irailaren 11tik  
19ra izango da.

Informazio gehiago nahi baduzue,  
deitu 94.455.61.26 telefonora.

Anima zaitetz, ez zara aspertuko!



• Egurako Menuak  
• Kizkoltekoak  
• Oliboko Erreta  
• Karta Zibila

Urtze Kalea, 1 Bujó - DERIO  
Tfn. 944 540 106

## Bar TRIPPY

### ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun  
eta futbolin jokatuta, etorri zaitetz Trippya, Derioa


Beteko Kalea Bujó  
DERIO

## leap indiegia

kolortu arta hobiratzeko  
duteen zerbitzuak  
ulergarriak erabiltzeko  
bitartekoak aurkitzeko  
Telefono: 94 454 36 80  
Gara Kalea, 2 - 48180 Derio

### ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

EDIFICIO PARA VIVIENDA Y NEGOCIOS EN ZAMUDIO (BARRIO)  
BARRIOJARRIN ZERBITZUA  
Santi Mami auzoa, 1  
Tel: 94 454 48 66  
Fax: 94 454 77 104  
48178 ZAMUDIO (Bizkaia)



## SANTI MIAMI

Arkatariak  
Nerea Pedrosa Cely, 617  
0007. CANADITA ZAMUDIO DERIO

Teléfono: 94 454 77 104  
94 454 77 104  
94 454 77 104



## OPTIKA IKUSLAN

Tietunreko graduatuen  
kontaktu kalibak  
Eguzkiinako betaurrekoak  
Luzerazko markak.

Ora kalera, 3. etaba. 91 452 28 18 ZAMUDIO




## GUEDAN

servicios deportivos, s.a.

### ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA

Herreri Sektoreko 5. Erakundearen (Barrutia) 7. Solairua, 1. Solairua - 48011 94 452 11  
Telefono: 94 452 80 10 - Fax: 94 452 87 12  
Zamudioko Kiroldegia: Telefonoa 94 452 21 20 - Fax: 94 452 30 74



## MENFORSAN S.A.

### IZURRIEN KONTROLA

Menforsan, izurrien kontrola - Ingarumen kontrolak  
Udalerri publikoaren kalera - Ingarumen kontrolak

- Izurrien kontrola.  
Zaberrak, erretak, erretak, erretak
- Udalerri publikoaren kalera.  
Auzoak, erretak, erretak, erretak
- Eguraren kalera.  
Auzoak, erretak, erretak, erretak
- Pisu, aire eta tenperatura kontrolak, erretak, erretak
- Altxorak, erretak, erretak, erretak

### Berre osoa

AVDA. PINO, 17 - 48170 ZAMUDIO - BIZKAIA - APDO. 1289 BILBAO  
TEL: 94 452 02 64 - FAX: 94 452 30 46



Et rk zun Er k tz n

G r n t In uru r r n rt n.

T kn l t En l urn rt n.

n zn .



a u

In ustr Tur r uls r s,S. .

# atera gorria!



k=